



# **ADIKZIOAK PREBENITZEKO IV. PLANA 2025-2030**

NAFARROAKO OSASUN  
PUBLIKOAREN ETA  
LAN OSASUNAREN  
INSTITUTUA (NOPLOI)

## **IV PLAN DE PREVENCIÓN DE ADICCIONES 2025-2030**

INSTITUTO DE SALUD  
PÚBLICA Y LABORAL DE  
NAVARRA (ISPLN)

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030

Nafarroako Foru Komunitateko hainbat eragileren, beste erkidego batzuen eta herritarren arteko elkarlaren emaitza da Plan hau.

Haiek guztiak gabe, ezinezkoa izanen zatekeen.

Hona hemen Adikzioak Prebenitzeko IV. Plan hau prestatu duen talde eragilea osatu duten

NOPLOIko pertsonak:

- Álvarez Arruti, Nerea - Zerbitzuburua. Gizarte Osasuna Sustatzeko Zerbitzua.
- Legarra Zubiría, Arantxa - Atalburua. Osasuna Sustatzeko eta Politika guztietan Txertatzeko Atala.
- Puchol Martínez, Itzal - Osasun-arloko psikologoa. Bizitza Estiloen Unitatea.
- Baigorria Feltrin, Fernando - Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko fakultatibo espezialista. Bizitza Estiloen Unitatea.
- Jauregui Elso, Mikele - Erizain espezialista. Osasun Eskolaren Unitatea.
- Razkin Orobengoa, Jose Miguel - Gizarte-hezitzailea. Bizitza Estiloen Unitatea.
- Urtasun Galdeano, Julia-Socióloga. Soziologoa. Osasuna Sustatzeko eta Politika guztietan Txertatzeko Atala.

Hona hemen IV. Plan hau prestatzeko talde eragilea osatu duten Osasun eta Komunitatea Fundazioko (FSC) pertsonak:

- Amatller Gutiérrez, Otger - Koordinazioa
- Plaza Hernández, Laia - Aholkularitza teknikoa

Diseinu grafikoa eta maketazioa: el-local.com

Esker berezia Osasun Publikoaren Behatokiari.

Argitaratzailea eta finantzaketa: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua.

LG NA 1941-2025

## AKRONIMOEN GLOSARIOA

**APNAP:** Adikzioak Prebenitzeko Nafarroako Plana (2025-2030)

**EB:** Europar Batasuna

**EDADES:** Alkoholari eta beste droga batzuei buruzko inkesta Espainian (15-64 urte)

**ESTUDES:** Espainiako Bigarren Hezkuntzan egiten den drogen erabilerari buruzko inkesta (14-18 urte)

**GHAP:** Gizarte eta Hezkuntza Arretarako Programa

**NFHNLEI:** Nafarroako Familia, Haur eta Nerabeei Laguntzeko Estrategia Integrala

**LGTBIQA+:** lesbiana, gay, transgenero, bisexual, intersexual, queer, asexual eta beste identitate eta orientazio batzuk

**LSOIN:** Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionala

**NOPLOI:** Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

**NOU:** Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa

**NUP:** Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**OEDA:** Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokia

**O-NOZ:** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

**PIT:** Tabakismoa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plan Integrala

**PNSD:** Drogei buruzko Plan Nazionala

**UHUN:** Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala

**UNAV:** Nafarroako Unibertsitatea

**XTP:** xiringak trukatzeko programa

|            |                                                                       |           |
|------------|-----------------------------------------------------------------------|-----------|
|            | <b>HITZAURREA</b>                                                     | <b>4</b>  |
| <b>1.</b>  | <b>AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA</b>                                    | <b>5</b>  |
| 1.1.       | Sarrera                                                               | 6         |
| 1.2.       | Printzipio gidariak                                                   | 7         |
| 1.2.1.     | Kontzeptu-esparrua                                                    | 7         |
| 1.2.2.     | Misioa, ikuspegia eta orientazioak                                    | 9         |
| 1.2.3.     | APNAParen irismena                                                    | 11        |
| <b>2.</b>  | <b>ARAUDIA</b>                                                        | <b>13</b> |
| 2.1.       | Nazioartekoa                                                          | 14        |
| 2.2.       | Europar Batasuna                                                      | 15        |
| 2.3.       | Estatukoa                                                             | 16        |
| 2.4.       | Nafarroako Foru Komunitatea                                           | 17        |
| <b>3.</b>  | <b>APNAPa PRESTATZEKO METODOLOGIA</b>                                 | <b>19</b> |
| <b>4.</b>  | <b>EGUNGO EGOERA EDO DIAGNOSTIKOA</b>                                 | <b>21</b> |
| 4.1.       | Kontsumoen egungo egoera                                              | 22        |
| 4.2.       | Gobernantzaren egoera APNAParen hasieran                              | 23        |
| 4.3.       | Egoera adikzio-motaren eta adikzioen prebentzioko esparruaren arabera | 26        |
| 4.4.       | Ezagutza eta ikerketa sozializatzeko prozesuaren egoera               | 33        |
| 4.5.       | Nafarroako adikzioen prebentzioan nabarmendu beharreko alderdiak      | 34        |
| <b>5.</b>  | <b>HELBURU ETA ILDO ESTRATEGIKOAK</b>                                 | <b>36</b> |
| <b>6.</b>  | <b>EKINTZA PLANA</b>                                                  | <b>40</b> |
| <b>7.</b>  | <b>GOBERNANTZA: KUDEAKETA, KOORDINAZIOA ETA ROLAK</b>                 | <b>47</b> |
| <b>8.</b>  | <b>EBALUAZIOA, JARRAIPENA ETA AURREKONTUA</b>                         | <b>50</b> |
| <b>9.</b>  | <b>ERREFERENTZIAK</b>                                                 | <b>57</b> |
| <b>10.</b> | <b>ERANSKINAK</b>                                                     | <b>58</b> |
|            | 1. ERANSKINA. APNAParen METODOLOGIAREN XEHETASUNA                     | 59        |
|            | 2. ERANSKINA. PARTAIDETZA-TALDEEN OSAERA                              | 63        |

## HITZAURREA

Komunitateak hamarkadak daramatza adikzioak prebenitzeko planak egiten, eta Adikzioak Prebenitzeko IV. Plan honek (2025-2030) segida ematen dio ibilbide horri. Denboraldi horretan, eraldaketa handiak izan dira: substantzia eta adikzio-modu berriak agertu dira (adibidez, portaerekiko adikzioak), kontsumo-ereduak aldatu dira, alde esanguratsuak sortu dira sexuaren arabera (eta, beraz, genero-ikuspegitik heldu behar zaie), eta kontsumo bereiziaz agertu dira bizitzako aroen arabera. Erronka horiek sendotu egiten dute prebentzio-estrategia eraginkorra alde egiteko beharra; estrategia horiek sentsibilizatzea, hezteak, babes-faktoreak indartzea eta arriskuak murriztea dute ardatz. Ikuspegi indibidualistak gainditu nahi dira, ekitatean oinarrituta egon diren eta prebentzio-zerbitzuak eskuragarriago bihurtuko dituzten ekintzak sustatuta.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ikuspegi integral, aktibo eta eraldatzailatik helduko die adikzioei, osasuna baldintzatzen duten gizarte-faktoreak kontuan izateko eta aztertzeke. Faktore horiek sortzen dituzten desberdintasunak behar-beharrezkoak dira fenomeno hori ulertzeko eta hari gizarte gisa aurre egiteko. Halaber, konpromiso instituzional horren harira, ebidentzia zientifikoan oinarritutako programak eta ekintzak sustatuko dira, eta materialak eta gidak prestatuko dira, tartean diren eragile guztien lana bideratzeko, bai erakundeetakoena, bai komunitateetakoena. Gainera, jarduera-ildo honen bitartez, Adikzioak Prebenitzeko III. Planaren ebaluaziotik sortutako gomendioei erantzuten zaie. Plan horren arabera, oso garrantzitsua da NOPLOIk arlo honetan duen lidergoa sendotzea eta jardunbide egokietan oinarritutako ikuspegiaren inguruko esku-hartzeak ba etorerraraztea.

Lan hori ezin da bakarrik egin. Apustu partekatu horretan, Osasun Departamentuko beste eragile batzuk ditugu lagun, baita Nafarroako Gobernuako funtsezko beste departamentu batzuk ere (Hezkuntza Departamentua; Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua; Nafarroako Gazteriaren Institutua; Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua; Nafarroako Berdintasunerako Institutua; Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua); orobat, elkarlan estuan jarduten dugu toki- eta gizarte-erakundeekin eta unibertsitateekin.

IV. Plan hau prestatzeko, partaidetza-prozesu bat egin da, eta errekonozimendu berezia merezi du. Halaber, ebidentziaren arabera, plan arrakastatsuek parte hartu dutenen ahotsak barne hartzen dituzte diseinatzeko eta egikaritzeko direnean. Prozesu horretan, jende askok parte hartu du; besteak beste, Nafarroako Gobernuako hainbat departamentu, toki-erakundeak, aurreko planetan esperientzia duten profesionalak, ibilbide luzeko gizarte-erakundeak, tokiko gizarte-mugimenduek, gure komunitateko gazteak, eta adikzioak prebenitzearen arloan esanguratsuak diren aldameneko eskualdeetako pertsonak. Politika publikoak partaidetzaren bitartez eraikitzeke gogo hori ez da Planaren diseinura mugatzen. Ezartzen den bitartean ere eztabaida- eta lankidetzak-esparruak egotea nahi dugu, eragileak sentitu dezaten haren garapenaren parte aktibo direla eta NOPLOIk beharrezko diren doikuntzak egin ditzan.

Datozen sei urteetan lan handia egin beharko dugu proposatutako helburuak erdiesteko eta ebaluatzeke eta haien eragina aztertzeke. Adikzioak prebenitzen aurrera egiten badugu, are ongizate handiagoa izanen du komunitateak: kontsumoek naturalizatuta egoteari utziko diote, eta guztientzat osasungarriagoak izanen diren inguruneak, jarrerak eta harremanak sortuko dira.

Eskerrak eman nahi dizkiet ikuspegi horrek elkartuta Plan berri hau posible egin duten pertsona guztiei, beren ahalegin eta inplikazioagatik.



Mª Ángeles Nuin Villanueva

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea

# 1.

## AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA

Adikzioak, bai substantziekikoak, bai substantziarik gabeak, osasun publiko eta komunitarioko arazo bat dira, eta ondorio fisikoak, psikologikoak eta sozialak dituzte nola kontsumitzaileengan hala gizartean oro har. Adikzioak prebenitzeko politikak ezinbestekoak dira haien eragina murrizteko eta komunitatean bizimodu osasungarriak sustatzeko.

Historikoki, askotariko esanahiei eta gizarte-aldaketei lotuta egon dira adikzioak, eta horrek eragina izan du haiek ulertzeko eta haiei ekiteko moduan. Denboran zehar, faktore soziokultural, historiko eta politikoen eraginez, aldatu egin da adikzioak ulertzeko era: lehen, arazo indibidual gisa ikusten ziren, baina, orain, osasun publiko eta komunitarioko arazo gisa ikusten dira.

Ikuspegi-aldaketa horri esker, prebentzio-estrategia eraginkorragoak garatu dira; estrategia horiek sentsibilizatzea eta hezteak, babes-faktoreak indartzea eta arriskuak murriztea dute ardatz. Nahitaezkoa da bilakaera hori ulertzea, diseinatzen ditugun prebentzio-programek gaur egungo beharrei erantzun diezaieten eta ongizate eta ahalduak indibiduala eta kolektiboa susta dezaten.

## 1.1. SARRERA

2023an amaitu zen adikzioak prebenitzeko aurreko plana, eta beste bat onartu beharra zegoelako egin da Adikzioak Prebenitzeko Nafarroako IV. Plan hau (2025-2030) (APNAP). Orobat, segida ematen die azken hamarkadetan Nafarroako Foru Komunitatean adikzioei buruz garatu diren beste zenbait plani, hala nola Alkoholismo eta Toxikomanietarako Planari (1986) eta 1993-2011, 2012-2017 eta 2018-2023 aldietako planei. Bilakaera nabarmena izan du; izan ere, hasiera batean, adikzioen ikuspegi asistentziala zuen, baina, orain, osasunaren eta prebentzioaren sustapenean jartzen du arreta.

APNAP honetan, lehentasunezkoztat jo diren ekintzak biltzen dira, Nafarroako adikzioen bilakaera eta errealitatea oinarritzat hartuta, baita adikzioen arloko tokiko, Estatuko eta nazioarteko programa eta zerbitzuen eraginkortasunari buruz dagoen ezagutza zientifikoa ere.

Plan berri hau adikzioen arloko lurralde-antolamendu, -plangintza eta -koordinazioko tresna bat da, eta kontuan hartzen ditu Nafarroako Gobernuko hainbat departamentu, toki-erakundeak, gizarte-erakundeak, partzuergoak eta unibertsitateak.

Planak ikuspegi salutogenikoa du; alegia, zerk sortzen duen osasuna, eta nola lortzen duten pertsonak, familiek eta komunitateek hura kontrolatzea eta hobetzea. Hala, planak helburu orokor hauek ditu: arriskuko kontsumoak eta beste adikzio-portaera batzuk murriztea, baita haiek komunitatean dituzten ondorioak ere; drogak kontsumitzeko eta beste adikzio-jokabide batzuk izateko arriskuaren pertzepzioa handitzea, eta adingabeek kontsumitzearekiko gizarte-tolerantzia txikitzea; adiktiboak izaten ahal diren substantziak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea; eta adikzioak prebenitzearekin erlazionatutako osasun-arloko desberdinkeriak murriztea, askotariko desberdindikeria-ardatzak kontuan hartuta.

Ororen gainera, tresna praktikoa gisa ikusten da APNAPa, udal mailan errazago erreproduzitu ahal izan dadin. Hori dela eta, hainbat infografia txertatu dira, zeinek aukera ematen baitute APNAPa zehazten duten funtsezko alderdiak begiratu batean ikusteko. Era berean, tresna dinamiko gisa ikusten da, eta APNAParen 6 urteko indarraldian lurraldean hautematen diren beharretan oinarrituta eguneratuko da.

Hurrengo ataletan, plan hau bideratuko duten funtsezko alderdiak garatuko dira. 1. atalak, sarrera labur baten ondotik, Planaren printzipio gidariak deskribatzen ditu (kontzeptu-esparrua; misioa, ikuspegia eta orientazioak, eta irismena adikzio-mailei, biztanle hartzaileei eta adikzio-motari dagokienez). 2. atalak APNAPERako erreferentzia gisa erabili den nazioarteko, Europar Batasuneko, Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko arau-esparrua aurkezten du. 3. atalak Planaren etapetan erabili den metodologia garatzen du. 4. atalak Nafarroako Foru Komunitatean adikzioen arloan gaur egun dagoen errealitatearen azterketa eta diagnostikoa aurkezten du. 5. atalak APNAParen helburuak eta ildo estrategikoak garatzen ditu, lurraldeko hainbat eragileren diagnostikoari eta adostasun adituari jarraikiz. 6. atalak ekintza-plan bat ezartzen du, non aurreikusitako jarduketak, arduradunak eta denbora-maiztasunak biltzen baitira ildo eta helburu estrategiko eta espezifiko bakoitzerako. 7. atalak Planaren gobernantza ordenatzen eta egituratzen du (eragile nagusien kudeaketa, koordinazioa eta rolak). 8. atalak, ebaluazioari, jarraipenari eta aurrekontuari buruzkoak, aurreikusitako ebaluazio-motak garatzen ditu, baita APNAPa ezartzean lortu behar diren emaitzak eta dagozkien adierazleak eta xedeak ere. Azken bi ataletan, erreferentziak eta eranskinak daude.

Azken beltzean, APNAPak arrakasta izateko, erakundeek, profesionalek eta gizarteak konpromisoa hartu beharko dute prebentzioaren kultura bultzatzeko, informazio eta baliabide egokiak irispidean egon daitezen bermatzeko, eta substantzien kontsumoari eta beste adikzio-jokabide batzuei lotutako arrisku-faktoreak minimizatuko dituzten ingurune osasungarriak sustatzeko.

## 1.2. PRINTZIOPIO GIDARIAK

### 1.2.1. Kontzeptu-esparrua

Zer-nolako baldintzatan jaiotzen, hazten, bizitzen, lanean aritzen eta zahartzen garen, halako osasuna izanen dugu. Baldintza horiei osasuna baldintzatzen duten gizarte-faktore esaten zaie. Biztanleen artean aldakorak direnez, gizarte-desberdinkeriak sortzen dira osasunaren arloan, zeinak bidegabeak eta saihegarriak baitira.

Osasunari buruzko ikuspegi hori abiapuntutzat hartuta, ulertzen ahal dugu adikzioak konplexuak direla eta hainbat faktorek baldintzatzen dituztela. Faktore horien artean ingurumenekoak daude, zeinek zerikusia baitute gizartearen testuinguru sozioekonomiko, kultural eta politikoarekin; halakoak dira, adibidez, gizarte-politikak (etxebizitza, hezkuntza, enplegua edo gizarte-ongizatea) edo gizartean nagusi diren balio eta arau kolektiboak. Badira beste faktore batzuk pertsonengandik hurbilago dagoen gizarte-testuingururekin erlacionatuta daudenak; adibidez, familia- edo hezkuntza-ingurunea, egoera sozioekonomikoa, laguntza-sarea, lan-baldintzak, eta lurraldean erabilgarri dauden osasun- eta gizarte-zerbitzuak. Adiktiboak izaten ahal diren portaerek eta substantzien erabilerak ingurumeneko eta pertsonen testuinguruko faktore horiekin zerikusia dute hein handi batean. Badira faktore indibidualak ere; esaterako, genetika, gorpuzker-faktoreak eta bizi-ohiturak. Horregatik da garrantzitsua pertsonak ardazten dituzten faktoreak babesa sustatzera eta inguruneetan arriskuak murriztera bideratutako beste batzuekin orekatzea.

Ikuspegi salutogenikoa dugu; alegia, zerk sortzen duen osasuna, eta nola lortzen duten pertsonak, familiek eta komunitateek hura kontrolatzea eta hobetzea. Adikzioei ikuspegi horretatik helduta, kontuan hartzen dira banakoen, taldeen eta inguruneen arrisku-faktoreak, baina baita substantzien eta adiktiboak izaten ahal diren portaeren probabilitatea murrizten duten faktoreak ere (alegia, babes-faktoreak). Halaber, garrantzitsua da kontuan izatea osasuna eta ongizatea sortzen duten eta komunitateak hala onartzen dituen faktore edo baliabideak, osasunerako aktibo ere deituak, susta daitezen.

Prebentzio-motei dagokienez, ebidentzia zientifikoak egiaztatu du eraginkorrak direla substantzien kontsumoa edo adiktiboak izaten ahal diren jokabideak gertatzen diren testuingurua aldatzea eta jokabide horiei sustagarria kentzea helburu duten egiturazko neurriak: ingurumen-prebentzioa. Gainera, garrantzitsua da prebentzio unibertsaleko, selektiboko eta adieraziko esku-hartzeak garatzea. Prebentzio unibertsaleko esku-hartzeak talde hartzaileko pertsona guztiei zuzenduta daude, edozein dela ere substantziak erabiltzeko arriskua eta adikzioa sortzeko arrisku potentziala. Aldiz, esku-hartze selektiboek talde zaurgarriekin lan egiten dute, haietan biltzen baitira substantzien erabilera eta beste adikzio-jokabide batzuk. Horretaz gain, esku-hartze adieraziek arrisku-faktoreak kontrolatzen laguntzen diete pertsonak, arrisku horiek are zaurgarriago bihurtzen baitituzte substantzien erabilera eta beste adikzio-jokabide batzuk areagotzeko.


Arriskuak eta kalteak murriztuta, aldatu egin nahi dira osasunerako bereziki larriak diren eta adikzioa sortzen ahal duten substantzien kontsumoari edo portaerekiko adikzioei lotuta dauden ondorioak areagotzen ahal dituzten jokabideak.

Halaber, esanguratsua da prebentzio-ekintzek osagai anitzeko ikuspegia izatea, hainbat esparrutako esku-hartzeak konbinatuta (familiakoa, eskolakoa, laneakoa eta komunitatekoa).



## KONTZEPTU-ESPARRUA

Osasuna baldintzatzen duten gizarte-faktoreak



## 1.2.2. Misioa, ikuspegia eta orientazioak

Nafarroa komunitate osasuntsua eta erresilientea izatea nahi du NOPLOIk: jendeak ez izatea adikziorik, eta eskuragarri izatea kalitatezko prebentzio-baliabideak, substantzien kontsumoarekin eta adikzio-portaerekin erlazionatutako arriskuei aurre egiteko.


### MISIOA



APNAParen xedea da administrazio publikoen eta gizarte-eragileen jarduketak bideratzea eta antolatzea, zeinek murriztu egin nahi baitute substantzia psikoaktiboekiko adikzioek eta portaerekiko beste adikzio batzuek duten eragina, prebentzio unibertsalaren, selektiboaren eta adieraziaren bitartez. Horretarako, ikuspegi integrala baliatuko da, eta sentsibilizazioa, hezkuntza eta arriskuen murrizketa sustatuko dira.

APNAPak Foru Komunitateko administrazio publikoen eta hezkuntza-, osasun- eta gizarte-eragileen ahaleginak koordinatu nahi ditu, prebentzio-erantzun orokorrak eta jasangarriak emateko. Helburua da Nafarroako gizartea kontzienteago izatea eta informatuagoa egotea adikzioei buruz, bereziki talde zaurgarrienen artean. Gainera, berdintasuna bermatuko da prebentzio-programak eta -baliabideak eskuratzeko orduan, eta, Nafarroan ongizate eta osasun komunitarioa sustatzeko, askotariko ikuspegiak txertatuko dira; besteak beste, arriskuak murrizteko, generokoa, aniztasuneko, ekitatekoa eta gizarteratzeko.

### IKUSPEGIA



APNAPak gizarte osasungarriagoa bultzatuko du, bizi-ohitura onuragarriagoak, ongizate emozionala eta gizarteratzea sustatuta. Horretarako, enfasi berezia jarriko da substantzia psikoaktiboak kontsumitzearen eta beste adikzio-portaera batzuen prebentziora, eta hezkuntza, sentsibilizazioa eta ingurune seguru eta babesleen sustapena azpimarratuko dira.

Planak arreta berezia emanen die talde zaurgarrienei; alegia, beren egoera sozioekonomikoa-gatik, adinagatik edo beste baldintza batzuegatik, adikzioak garatzeko arrisku handiagoa dutenei. Hainbat sektoreen arteko estrategia koordinatuen bitartez, ahalegina egingen da osasunaren arloko desberdinkeriak murrizteko eta prebentzio- eta laguntza-baliabideak irispidean izan direla bermatzeko.

Ikuspegi integralean oinarrituta, planak ez du prebenitu nahi alkoholaren, tabakoaren, legez kontrako drogen edo beste substantzia batzuen kontsumoa soilik, baita substantziarik gabeko jokabideak ere, hala nola joko patologikoa eta teknologien erabilera problematikoa. Ekintzak ezarriko dira hezkuntzaren, familiaren eta lanaren esparruetan; horren haritik, babes-faktoreak sustatuko dira, eta arrisku-faktoreak murriztuko.

APNAPak biztanleen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko du, gizarte-kohesioa indartuko du, eta prebentzioaren ikuspegitik helduko die adikzioei, erakundeen eta gizarte-eragileen arteko lan-kidetzan oinarrituta.

APNAPak segurutzat jotzen ditu hainbat ikuspegi, hala nola giza eskubideak, politika publikoetan osasuna integratzearren ikuspegia, gizarteratzea eta irisgarritasuna, jasangarritasuna edo gardentasuna, baina bereziki ikuspegi hauek nabarmentzen ditu. Ikuspegi horiek elkar osatzen dute, eta batera erabiltzen ahal dira estrategia eraginkorrak eta ekitatiboak garatzeko adikzioak prebenitzeko orduan.

## IKUSPEGIAK



**Sektoreartekotasuna eta diziplinartekotasuna:** Adikzioak prebenitzeko orduan, **sektoreartekotasunak** berekin dakar hainbat sektore elkarlanean aritzea (osasuna, hezkuntza, justizia, gizarte-eskubideak, toki-ingurunea, etab.), modu integralean heltzeko drogen kontsumoa eta portaerekiko beste adikzio batzuk areagotzen dituzten faktoreei, osasuna politika guztietan txertatzeko ikuspegia kontuan hartuta. Berekin dakar politika eta programa eraginkorrak sortzea, arazoaren konplexutasuna kontuan har dezaten. **Diziplinartekotasunak** esan nahi du hainbat diziplinatako ezagutzak eta metodoak integratu behar direla adikzioak prebenitzeko orduan (adibidez, gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, psikologia, soziologia, erizaintza eta medikuntza).

**Ekitatea eta genero-ikuspegia:** Genero-desberdinkeriei helduko zaie, eta talde ez-pribilegiatuen behar espezifikoak erantzuten dieten politikak sustatuko dira, kontuan izanik askotariko identitateak eta esperientziak (generoa, gizarte-maila, adina, etnia, lurraldea, etab.) elkarri gainjartzen zaizkiola eta drogen kontsumoari eta portaerekiko beste adikzio batzuei eragiten dietela.

**Arriskuen murrizketa:** Minimizatu egin nahi du jendea drogak kontsumitzen eta portaerekiko beste adikzio batzuk izaten hasteko edo haiek areagotzeko probabilitatea, baita kontsumo problematikoko arriskua handitzen ahal duten faktoreak murriztu ere. Informazioa eta hezkuntza ematen ditu erabilera arduratsuari buruz, gaitasunak garatzen ditu erabakiak hartzeko, eta aukera seguruagoak sustatzeko inguruneak sortzen ditu. Haren helburua da tresnak eta baliabideak eskaintzea arrisku-egoerak saihesteko eta kontsumoari buruzko erabaki informatuak hartzeko.

**Bizitza-ibilbidearen ikuspegia:** Bizitzaren garapeneko askotariko etapetara egokitzen ditu adikzioak prebenitzeko estrategiak, eta aitortzen du bizitzan zehar aldatzen ahal direla adikzioekin erlazonatutako beharrak eta arriskuak.

**Partaidetza:** Komunitateek eta kaltetutakoek prebentzio-programak diseinatzeko, ezartzen eta ebaluatzen aktiboki parte hartzea sustatzen du. Aitortzen du irtenbide eraginkorrak tokiko errealitate eta beharretara egokitu behar direla.

**Kalitatea, ebidentzia zientifikoa eta ebaluazioa:** Garrantzitsutzat jotzen du politikak eta programak ebidentzia empirikoan eta jardunbide eraginkor eta jasangarrietan oinarritzea. Etengabe ebaluatzen ditu emaitzak, eta gardentasuna bilatzen du, esku-hartzeak kalitatezkoak direla eta helburuak betetzen dituztela ziurtatzeko.


## 1.2.3. APNAParen irismena

APNAPak irismen hirukoitza du, adikzio-mailen, biztanle hartzaileen eta adikzio-motaren arabera:



### KONTSUMO-MAILAK

- Ez-kontsumitzaileak.
- Modu esperimentalean, noizean behin eta eskuarki kontsumitzen duten eta kontsumo problematikora iristen ahalko liratekeen pertsonak.



### HARTZAILEAK

- Ingurumen-prebentzioa, eta prebentzio unibertsala, selektiboa eta adierazia.
- Bizitzako aroak: haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, helduarora eta zahartzarora.
- Esparruak: familiakoa, eskolakoa, lanekoa eta komunitarioa.
- Zaurgarria: lurraldearen, generoaren, adinaren, gaitasunen eta kulturaren arabera.



### ADIKZIO-MOTA

- Substantziekiko adikzioak.
- Substantziarik gabeko edo portaerekiko adikzioak.

## 1. irismena: Kontsumo-mailak

Kontsumo-mailei dagokienez, APNAPa funtsezko tresna da oraindik erabilera edo portaera problematikorik ez duten biztanleen artean osasuna sustatzeko eta adikzio-jokabideak prebenitzeko. APNAPak pertsona guztiak hartzen ditu barnean, baita kontsumoekin duten harremana ere: ez-kontsumitzaileak, eta modu esperimentalean, noizean behin eta eskuarki kontsumitzen duten eta kontsumo problematikora iristen ahalko liratekeen pertsonak.

## 2. irismena: Hartzaileak

Hartzaileei dagokienez, prebentzio unibertsaleko ekintzak proposatzen dira Nafarroako biztanle guztientzat, baita prebentzio selektiboko eta adieraziko ekintzak ere bizitzako aro guztietan eta askotariko esparruetan. Arreta berezia ematen zaie biztanle zaurgarrienei, hainbat ikuspegi kontuan hartuta; besteak beste, lurralde- eta genero-ikuspegiak, adina, gaitasunak eta alderdi kulturalak.

## 3. irismena: Adikzio-mota

Plan honek substantziekiko adikzioak eta substantziarik gabeko edo portaerekiko adikzioak hartzen ditu kontuan:

Substantziekiko adikzioetan, legezko substantzia psikoaktiboak daude; besteak beste, alkohola, tabakoa eta erlazionatutako produktuak (adibidez, zigarro elektronikoak, bapeagailuak, etab.), edari energetikoak eta hipnosedatzaileak, bai errezetadunak, bai errezetarik gabeak. Halaber, kontuan hartzen dira legez mugatutako edo partez despentalizatutako substantziak, hala nola kalamuaren eratorriak (adibidez, marihuana eta haxixa). Orobat, legez kontrako substantzia psikoaktiboak sartzen dira; esaterako, heroina, kokaina-hautsa eta/edo kokaina garbia, cracka (kokaina errea), anfetaminak eta metanfetaminak, MDMA (estasia), katinonak, GHBa, ketamina eta beste substantzia esanguratsu batzuk.

Substantziarik gabeko edo portaerekiko adikzioetan, adikzio bihurtzen ahal diren jarduerak daude; esaterako, diruarekin jokatzeko (aurrez aurre edo online), sare sozialak eta Internet gehiegi erabiltzea, bideojokoetan ibiltzea, edo erosketekin, sexuarekin edo elikadurarekin erlazionatutako beste jarduerak konpulsibo batzuk. Halaber, kontuan hartzen dira adikzioa eragiten ahal duten beste jarduerak esanguratsu batzuk.

## 2.

# ARAUDIA

APNAParen bitartez, drogen eta adikzioen prebentzioari dagokionez Nafarroako administrazio publikoek abian jartzen dituzten estrategiak eta jarduketak planifikatzen antolatzen eta koordinatzen dira, adikzioei arreta integrala emateko ereduaren barruan. Nazioarteko, Europar Batasuneko (EB), Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko arau-esparruan jasotako aginduari erantzuten dio. Arau-esparru honek modu integral eta koordinatuan esku hartzeko oinarriak ezartzen ditu, eta osasun publikoaren, giza eskubideen eta garapen jasangarriaren ikuspegitik aurrea hartu eta heldu nahi zaie adikzioei.

Nazioartean, herrialdeen arteko lankidetza sustatzen da, eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako estrategiak ezartzen dira, drogek eta adikzioek gizartean duten eragina murrizteko. Europan, diziplinarteko ikuspegia sustatzen da, eta kalteen prebentzioa, tratamendua eta murrizketa lehenesten da, bereziki talde zaurgarrietan (esaterako, haurtzaroa eta gaztaroa). Estatuan eta eskualdean, arauak aukera-berdintasuna bermatu nahi dute prebentzio- eta tratamendu-programetan sartzeko orduan; horren haritik, bizi-ohitura osasungarriak sustatzen dituzte, eta substantzien kontsumoari eta portaerekiko adikzioei lotutako arriskuak murrizten dituzte.

Plan hau bat dator printzipio horiekin, eta biztanleen beharrei erantzuten dieten eta askotariko sektoreen arteko lankidetza indartzen duten ekintza espezifikoak integratzen ditu.

## 2.1. NAZIOARTEKOA

Infografia honek nazioartean adikzioei buruz indarrean dauden arau- eta lege-esparru nagusiak biltzen ditu:

### ESTEKA

Estupezienteei buruzko 1961eko Konbentzio Bakarra.



Substantzia psikotropikoei buruzko 1971ko Hitzarmena.



Estupezienteen eta substantzia psikotropikoen legez kanpoko trafikoari buruzko 1988ko Konbentzioa.



"Drogen mundu-mailako arazoari heltzeko eta eraginkortasunez aurre egiteko" baterako konpromisoan Nazio Batuen Batzar Nagusiak (UNGASS, 2016) emandako ebazpena.



2019ko ministro-adierazpena: "Estatuko, eskualdeko eta nazioarteko neurriak indartzea baterako konpromisoak bizkorrago betetzeko, drogen mundu-mailako arazoei heldu eta aurre egitearren".



2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuak.



Tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen arloan jarduteko Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) iradokitako askotariko plan estrategikoak eta ekintza-planak).



Giza eskubideei buruzko nazioarteko gidalerroak, eta drogei buruzko 2019ko politikak.



Drogen kontsumoa prebenitzeko nazioarteko arauak (bigarren edizio eguneratua, 2018).



## 2.2. EUOPAR BATASUNA (EB)

Jarraian, APNAP honi aplikatzen zaion EBko legeria agertzen da:

### ESTEKA

Drogei buruzko EBren ekintza-plana (2021-2025), II. jarduera-ildoa. Droga-eskariaren murrizketa. Prebentzio-, tratamendu- eta laguntza-zerbitzuak, eta haren 5. lehentasun estrategikoa. Drogen kontsumoa prebenitzea, eta drogek dituzten ondorio kaltegarriak buruz kontzientziatzea.



Drogei buruzko EBren estrategia (2021-2025), zeinak eskaria murrizteko lehentasunezko arloaren barruan heltzen baitio drogen kontsumoa prebenitzeari. Esparru honen helburu nagusia da haurtzaroaren eta gaztaroaren garapen osasungarria eta segurua lortzen laguntzea, baita legez kontrako drogen kontsumoa murriztea ere. Hori lortzeko, drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea proposatzen du estrategiak, eta drogen kontsumo problematikoa prebenitzea eta murriztea.



Europako Parlamentuaren 2023ko abenduaren 12ko Ebazpena, osasun mentalari buruzkoa (2023/2074 (INI).





## 2.3. ESTATUKOA

Estatuko legeria honi ere lotu beharko zaio APNAPa:

### ENLACE

1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.



14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa (Espainiako Konstituzioaren 43. artikuluan jasoa).



17/2017 Errege Lege Dekretua, azaroaren 17koa, Tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzkoa den eta tabako-produktuen salmenta, horniketa, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legea aldatzen duena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/40/EB Zuzentarauaren transposizioa egiteko.



33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa.



579/2017 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, tabako-produktuak eta haiekin lotutako produktuak fabrikatu, aurkeztu eta merkaturatzearekin zerikusia duten zenbait alderdi arautzen dituen.



Drogei buruzko Plan Nazionaleko (PNSD) Adikzioei buruzko Estrategia Nazionala (2017-2024).



Drogei buruzko Plan Nazionaleko (PNSD) Adikzioei buruzko Ekintza Plana (2021-2024).



## 2.4. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko esparru eta araudi hauek bete behar ditu APNAPak:

Plan hau sortzeko, **Nafarroako Osasun Publikoaren Plana (2022-2025). Bidezko gizartea.**

Bizitza osasungarriak hartu da oinarri gisa, zeinak barnean hartzen baitu Drogak eta Adikzioak Prebenitzeko Plana. Azken hori prebentzio unibertsalean, selektiboan eta adierazian ardazten da, aro eta esparru guztietan, baina bereziki gaztaroan eta biztanle zaurgarriengan. Osasun Publikoaren Planeko lan-ardatzen artean, aipatzekoa da osasuna zaintzearen eta gaixotasunak prebenitzearen aldeko portaerak sustatzen direla, eta aukera-berdintasuna bermatzen da bizitza osoan. Haren helburua da osasunaren arloko desberdinkeriak murriztea, aro eta bizimodu guztietan osasuna zeharka sustatuta, baina, bereziki, talde zaurgarrienen osasun-maila handituta. Helburu espezifikoaren artean, nabarmentzekoa da “jardunbideak sustatzea, alkoholaren, tabakoaren eta beste substantzia batzuen kontsumoa eta haiei lotutako arrisku eta kalteak murrizteko, baita substantziarik gabeko adikzioak ere, Drogei eta Adikzioei buruzko Foru Planaren esparruan”.



**Osasunari buruzko Foru Legearen Aurreproiektuak** lehentasuna ematen die gaixotasunak

prebenitzera eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzera bideratutako politikiei, biztanleen osasuna hobetzeko. 28. artikulua, Osasunaren sustapenari buruzkoak, dio planak eta programak ezarriko direla Osasunari buruzko Planaren esparruan, adikzioak prebenitzeko, portaeretikiko adikzioak barne. Era berean, 46. artikulua, Osasun mentalerako arretari buruzkoak, dio arreta berezia emanen zaiela pertsona zaurgarriari, gero eta handiagoak diren mehatxu hauen aurrean: substantziei edo substantziarik gabeko adikzioak, patologia dualak. APNAPa prestatzeko unean, oraindik indarrean dago Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea Nafarroan.



**Nafarroako Osasun Mentalari buruzkoak** abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeak

**Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren** egitura organikoa ezartzen du, eta, besteak beste, indarkeria eta substantzia kaltegarrien kontsumoa prebenitu nahi du adikzioen esparruan. Lege horrek proposatzen du osasun mentaleko diziplinarteko laguntza-zerbitzuak sortzea, arlo askotako profesionalen osatuak (psikiatria, psikologia klinikoa, erizaintza, gizarte-lana, terapia okupazionala, etab.), baita egokitutako jotzen diren bestelako langileez ere, hainbat planetako helburuak erdiesten direla bermatzeko (besteak beste, Droga Menpekotasunen Planekoak).



**Nafarroako Osasun Mentaleko Planak (2019-2023)** arreta-eredu komunitarioaren alde

egiten du, zeinaren helburua baita pazienteen sendatzea. Eredu horretan, diziplinarteko taldeek modu integralean eta etenik gabe emanen dituzte zainketak; erabiltzailea ere sartuko dute erabakiak hartzeko prozesuan, eta haren autonomia bultzatuko dute; eta konpromiso profesionala hartuko dute ahalik eta ebidentzia zientifikorik onenaz baliatzeko eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko. Planeko 28. helburuak proposatzen du modu arrazionalen erabiltzea medikazio psikofarmakologikoa lehen mailako arretan eta osasun mentalean; horretarako, tratamendu farmakologikoa murrizteko programa bat sustatzen du nahasmendu mental komuna duten baina osasun mentalaren arloan ez dauden pertsonentzat.



**32/2013 Foru Dekretuak, maiatzaren 22koak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Programa eta Finantzaketa arloan garatzeko erregelamendua** onesten duenak, oinarrizko gizarte-zerbitzuen programetako edukia garatu nahi du, esparru orokorreko gizarte-zerbitzuen zorroak Nafarroako Foru Komunitatean bermatzen dituen prestazioak kontuan izanda. 6. artikulua, lehen mailako arretako gizarteratze-programaren edukiari buruzkoak, e) apartatua dio gizarteratze baztertzeko egoerak aurreikusiko direla, gizarteratze-programarako indarra duten erreferentziatzeko planen esparruan.



**Nafarroako Gazteriaren Foru Estrategiak (2020-2023)** “horizonte” ardatz gisa aipatzen duenez, osasunaren garapena testuinguru honetan egin behar da: kirol-jardueren eta sexu-harreman osasuntsu eta afektiboen sustapena, eta hainbat substantziaren (tabakoa, alkohola, drogak, etab.) kontsumoari lotutako mendekotasunen prebentzioa, bai eta osasunean eragin negatibo handia duten mendekotasun-ohiturena ere, hala nola jokoarekiko edo teknologia berriekiko mendekotasuna. Era berean, **Gazteriaren Foru Estrategian (2025-2028)** oinarrituko da APNAPa. Oraindik ez dago amaituta estrategia, baina haren helburuetako bat da Nafarroako gazteen artean bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, jarduera fisikoa, elikadura orekatua eta adikzioen eta jokabide arriskutsuen prebentzioa bultzatuta.



**Maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legeak, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoak, haur eta nerabeentzako arreta integrala** ziurtatu nahi du Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, eta haurrak eta nerabeak eta haien familiak eta eskubideak babesteko esparru juridikoa ezartzen du, bai eta haien prebentzio eta sustapenerako neurri eta jarduketak administratiboak ere. Osasunaren arloari dagokionez, alkoholaren, tabakoaren eta beste droga batzuen kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzea proposatzen du.



**Nafarroako Familia, Haur eta Nerabeei Laguntzeko Estrategia Integrala.** Gaur egun amaitu ez bada ere, familien eta adingabeen ongizate integrala sustatu nahi du, eta arreta berezia jartzen du zaurgarritasunean. Haren arlo estrategikoen eta esku hartzeko ildoen artean, beharrezkoa da substantzia psikoaktiboekiko adikzioak eta substantziarik gabeko edo portaerekiko adikzioak prebenitzea.



**15/2025 Foru Dekretua, otsailaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitateko Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorra** onesten duena. Arau horretan, joko eta apustuen antolaketarekin, ustiaketarekin eta praktikarekin erlazionatutako alderdiak garatzen dira Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan. Beste zenbait neurriren artean, testuak hauek arautzen ditu: lokal eta makinen plangintza eta funtzionamendua, haien ordutegiak, eta publizitatea eta babesletzak, baita jolas-areto eta apustu-etxeen kontrol eraginkorra ere, adingabeen eta talde zaurgarrien babesa indartzeko.



Era berean, APNAPa ezartzearekin zuzenean erlazionatutako beste araudi batzuk; esaterako, **10/1991 Foru Legea, martxoaren 16koa, adingabeei edari alkoholodunak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzkoa**; lege horren bitartez, edari alkoholodunak kontsumitzea galarazten zaie adingabeei, eta alkoholismoa eta alkoholaren gehiegizko kontsumoarekin erlazionatutako beste gaixotasun batzuk prebenitzeko politika ziurtatzen da. 20. artikuluen arabera, Osasun Departamentuari dagokio adingabeei zuzendutako informazio- eta hezkuntza-politika bat zehaztea, gazteen artean alkoholaren kontsumoa mugatzeko eta alkoholismoa prebenitzeko.



### 3.

## APNAPA PRESTATZEKO METODOLOGIA

Prozesu parte-hartzaile eta kolaboratibo baten bitartez prestatu da APNAPA. Hainbat eragilek parte hartu dute prozesu horretan, hura garatzeko orduan askotariko ikuspegiak eta beharrak kontuan hartzen direla ziurtatzeko:

1) Batzorde arduraduna, Zuzendaritzak eta NOPLOIren talde eragileko langileak osatua. APNAPA prestatzeko prozesu orokorra koordinatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratu da.

2) Talde eragilea, NOPLOIko bertako langileek eta Osasun eta Komunitatea Fundazioko Prebentzio Departamentuko bi profesionalek osatua. APNAPA modu parte-hartzailean diseinatzeaz eta prozesu osoa antolatu eta gainbegiratzeaz arduratu da taldea.

3) Partaidetza-taldeak; bi talde sortu dira: bata, gizarte-erakundee-tako, Nafarroako Gobernuako departamentuetako, partzuergoetako eta unibertsitateetako langileek osatua, eta bestea, toki-administrazioan ardaztua, adikzioak prebenitzeko ekintzak ezartzen ari diren udalerrietako teknikariek osatua. Talde horiek funtsezkoak izan dira planaren diseinua aberasteko, esperientzia eta iradokizun baliotsuak ekarri baitituzte.

4) Funtsezko informatzaileei egindako elkarrizketak. Elkarrizketak egin zitzaizkien lurraldeko funtsezko informatzaileei, eta, haiei esker, Nafarroako adikzioen prebentzioari buruzko diagnostikoa osatu eta zabaldu ahal izan zen.

Informazio gehiago nahi izanez gero, APNAParen 1. ERANSKINA (Metodologiaren xehetasuna) kontsultatzen ahal da.

## APNAPA PRESTATZEKO METODOLOGIA



### 1. FASEA: PLANGINTZA

- Hasierako bilera: APNAParekiko konpromisoak ezartzen eta adosten dira.
- APNAPA prestatzeko prozesuaren aurkezpena, NOPLOIko teknikariekin batera.
- APNAParen egitura teknikoaren eraketa: batzorde erantzuleak, talde eragile batek eta partaidetza-batzorde batek osatua.



### 2. FASEA: DIAGNOSTIKO PARTE-HARTZAILEA

- Drogei eta Adikzioei buruzko III. Prebentzio Plana (2018-2023) ebaluatzea.
- Nafarroako Foru Komunitaterako ESTUDES 2023 eta EDADES 2024 inkestetako datuak.
- Parte-hartzaileen taldeak.
- Funtsezko informatzaileei egindako elkarrizketak.
- Adikzioak prebenitzeko tokiko planen kontsulta.
- Adikzioen Prebentzioan Genero Ikuspegia Txertatzeari buruzko Txostena (NOPLOI).
- Adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketa. Etorbizuneko aukerak (2024).
- Talde eragilearen saioak.
- Gobernu Irekiaren bidezko parte-hartzea.



### 3. FASEA: APNAParen DISEINUA

- Ekintzak lehenesteko partaidetza-taldea.
- Banakako onlineko inkesta.
- Gobernu Irekian parte hartzea.
- Talde eragilearen saioak lehenetsi beharreko ekintzak doitzeko eta APNAParen edukia eta diseinua prestatu eta gainbegiratzeko.

## 4.

# EGUNGO EGOERA EDO DIAGNOSTIKOA


Atal honetan, substantziaren araberako kontsumoaren prebalentziari eta adikzioekin erlazionatutako portaera arriskutsuei buruzko datuak aurkezten dira. Duela gutxi egindako azterlanetatik atera da informazio hori; besteak beste, ESTUDES 2023 eta EDADES 2024 txostenetatik, Drogei eta Adikzioei buruzko III. Prebentzio Planaren (2018-2023) ebaluaziotik eta beste iturri interesgarri batzuetatik. Kontsumoez gain, adikzioen prebentzioa zer egoeratan dagoen aztertzen da, eta zer motatako esku-hartzeak egiten ari diren eta zer esparrutan esku hartzen ari den identifikatzen da.

Gobernantza aztertzen da, eta ebaluatzen da nola antolatzen ari diren ahaleginak erakunde eta departamentuak problematikari modu koordinatuan heltzeko; horretaz gain, hausnarketa egiten da adikzioen arloko ezagutza eta ikerketa sozializatzeari buruz.

Informazio hori funtsezkoa da arazoa norainokoa den ulertzeko, eta APNAParen estrategiak bideratzeko; horretaz gain, lagungarria izan da egungo egoera hobeki ulertzeko, eta abiapuntu sendoa eman du esku hartzeko beharrezko estrategia eraginkorrak diseinatzeko eta planifikatzeko, komunitatearen benetako beharrei hel diezaieten eta Nafarroan osasun publiko hobia susta dezaten.

4.1. KONTSUMOEN EGUNGO EGOERA<sup>1</sup>

GIZON GAZTEAK   GIZON HELDUAK   EMAKUME GAZTEAK   EMAKUME HELDUAK



<sup>1</sup> EDADES 2024 eta ESTUDES 2023

Gazteen artean, etorkizunerako erronka handia eta konplexua dira substantziak kontsumitzen hasteko adinak. Alkohola da kezka nagusietako bat, gizartean normalizatu egin baita. Gaztaroan, APNAPak arreta espezifiko eskaini behar die kontsumo intentsiboei (adibidez, binge drinkinga eta kale-edana) eta emakumeen artean alkoholaren ohiko kontsumoak izan duen gorakadari.

Beste substantzia batzuei dagokienez, nahiz eta kalamuaren kontsumoa murriztu egin den gazteen artean, legez kanpoko drogarik kontsumituena da oraindik ere. Egoera horren funtsezko faktore bat da substantzia hori normalizatu egin dela gizartean, alkohola eta tabakoa bezala. Gainera, arreta berezia merezi du zigarro elektronikoen kontsumoak, tabakoak baino arrisku txikiagoa dutela pentsatzen baitute gazteek. Hori dela eta, badirudi zigarro elektronikokoak tabakoa ordeztzen ari direla gazteen artean.

Halaber, aisialdian beste kontsumo batzuk hasi dira garatzen, erraz eskuratzeko modukoak direla hautematen baitute gazteek eta beste kolektibo batzuek (adibidez, LGTBIQA+). Horregatik, analisi zehatza eta jarduketa espezifikoak egin beharko dira arlo horretan datozen urteetan. Substantzia horien artean, aipatzekoak dira speeda, estasia, anfetaminak, popperra eta kannabinoide sintetikoak. Orobat, kezkagarria da edari energetikoak alkoholarekin nahasita kontsumitzen direla, bereziki gizonen artean. Emakumeek gero eta gehiago kontsumitzen dituzte hipnosedatzaileak, eta horrek galdera berriak sorrarazten ditu substantzia horiek eskuratzeko bideei eta haiek kontsumitzearekin erlazionatutako faktoreei buruz, literaturan aipatzen diren genero-aldeekin erlazionatutakoak barne.

Helduetan, alkohola da nagusi oraindik ere. Datozen urteetan, ohiko kontsumoa landu beharko da, aisialdi eta sozializazio-testuinguruetan substantzia hori normalizatzearen emaitza. Erronka esanguratsua da hori APNAPERako eta osasun publikorako, pertsonen osasunean dituen ondorioak direla eta. Tabakoari dagokionez, kontsumo-tasa handiagoak identifikatu dira interes bereziko talde batzuetan. Helduek kalamua kontsumitzearen gaiak lehenetsuna du oraindik ere, eta, beraz, prebentzio-estrategia eraginkorragoak eta egokituagoak garatu behar dira normalizazioari aurre egiteko eta substantzia horren eguneroko erabilera eta erabilera problematikoa murrizteko. Helduetan, kezkagarria da, halaber, hipnosedatzaileen kontsumoa, bereziki pertsonen ongizate emozionalarekin duten loturagatik. Ikusten denez, kontsumo horretan, genero-alde handia dago, emakume gehiago baitaude gizon baino.

Substantziekiko adikzioez gain, erabakigarria da substantziarik gabeko edo portaerekiko adikzioei heltzea, gero eta garrantzitsuagoak baitira gazte eta helduetan. Adikzio horietan sartzen dira joko patologikoa, sare sozialen erabilera konpulsiboa eta bideojokoak. Baliteke estresaren eta bakardadearen eraginez biztanleek portaerekiko adikzioak garatzea, baita eduki digital gehiegi kontsumitzea ere. Ereduek horiek ondorio larriak dituzte pertsonen osasunean eta ongizate emozionalean.

## 4.2. GOBERNANTZAREN EGOERA APNAPAREN HASIERAN

### Departamentuarteko eta departamentu barruko koordinazioa

Adikzioak prebenitzeko, modu eraginkorrean jardun behar dute elkarlanean askotariko departamentuek, osasunaren, hezkuntzaren, eskubide sozialen, barne-arazoen eta justiziaren, gazteriaren eta berdintasunaren arloetan eskumenak dituztenak barne. Ikusi denez, sektore horien arteko esku-hartzeak zatituta daude. Gainera, funtsezkoa da harremana indartzea Osasun Departamentuaren barruan, Osasun Mentaleko eta



Lehen Mailako Arretako kudeatzailetzen eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (NOPLOI) artean, hainbat mekanismo ezarrita, sinergia eraginkorra eta jarraipena berma dezaten osasunaren sustapenaren, prebentzioaren eta adikzioen ondoriozko nahasmenduen arreta eta errehabilitazioaren artean.

## Adikzioen prebentzioari lotutako kudeaketa tekniko eta politikoa


Adikzioen prebentzioak kudeatzean, hainbat erronka daude; esaterako, lidergoa indartzeko beharra eta jarduketak koordinatzeko egitura egonkor bat izateko beharra. Egoera zaildu egiten da, beste erronka batzuk sortzen baitira, besteak beste adikzioen arazoarekiko sentikortasuna eta haien prebentzioak dakarren lan-zama areagotzeari lotuak.

## Tokiko gobernantzako eraldaketak

Gobernantzak aldaketa nabarmenak izan ditu, bereziki 2021ean prebentzioko teknikarientzako NOPLOIren funtsak Eskubide Sozialetako Departamentura eskualdatu ondotik. Neurri horrek aukera eman du langile horiek oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egonkortzeko, baina ahuldu egin ditu NOPLOIk tokiko prebentzio-ekintzen inguruan zituen segimendua eta lidergoa. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalen parte batek beste zama bat balitz bezala ikusten dute adikzioen prebentzioa, eta, ondorioz, desberdintasunak izan dira jarduketak garatzean eta udalerrien artean programak ezartzean. Gainera, lanaldian zehar adikzioen prebentziorako erabiltzen diren orduen portzentajea eskuarki % 50etik beherakoa da, eta bereziki emakumeei eragiten die.

Gobernuaren Ordezkaritzak Drogei buruzko Plan Nazionalerako koordinatutako adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketatik<sup>2</sup> lortutako datuak.

### ADIKZIOEN PREBENTZIORA BIDERATUTAKO ORDUEN PORTZENTAJEA, SEXUAREN ARABERA (%) (N=25)




2. grafikoa. Lanaldian zehar adikzioen prebentziorako erabiltzen diren orduen portzentajea. Iturria: Adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketa (2024)<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Villanueva-Blasco, V. J., Amatller, O., Isorna, M., Otero-Requeijo, M. eta Ramírez de Arellano, A. (2024). Adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketa. Etorkizuneko aukerak. Osasun Ministerioa. Gobernuaren ordezkaritza Drogei buruzko Plan Nazionalerako.

## Tartean dauden eragileen prestakuntza

Adikzioen prebentzioan diharduten profesionalen gaikuntza alderdi erabakigarria da, eta arreta eman behar zaio. Gaur egun, prestakuntza espezifiko falta da arlo honetan. Beharrezkoa da erreferentziazko esparruei jarraikiz ematea adikzioen prebentzioko prestakuntza-saioak, eta prestakuntza horretan mapa argi bat aurkeztea adikzioekin erlazionatutako legezko baliabide eta alderdiei buruz.

### ZEIN IZAN DA ADIKZIOEN PREBENTZIOAREN ARLOAN JASO DUZUN PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOKO MODALITATE NAGUSIA? (%) (N=25)



3. grafikoa. Adikzioen prebentzioari dagokionez Nafarroan jasotako prestakuntza espezifiko modalitatea. Iturria: Adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketa (2024)<sup>2</sup>.

## Lurraldeko desberdinkeriak

Nabarmenezkoa da baliabideak eremu geografiko jakin batzuetan pilatzen direla; esaterako, Iruñerrian eta Erribera aldean, biztanleen % 72 han bizi baitira. Banaketa horren ondorioz, zenbait zonaldek (adibidez, Nafarroako ipar-ekialdea) prebentzioko baliabide gutxiago dituzte. Desberdintasunak daude, halaber, ikastetxeetako jarduketetan: hezkuntzaren arloko erakundeek ez dute babes bera udalerrri batean edo bestean. Gainera, oso aldakorra da esku-hartzearen kalitatea, prebentzio-ekintzez arduratzen diren profesionalen prestakuntzaren, esperientziaren eta motibazioaren mende baitago. Horrek agerian uzten du beharrezkoa dela tartean diren profil profesionalen gaikuntza homogeneizatzea.

## Sareko lana eta lankidetza

Ongi baloratu da egindako sareko lana, lankidetza errazten ahal duelako, baina, lidergo aktiborik egon ez denez, truke profesionaleko gune gutxi sortu dira. Beharrezkoa da plataformak sortzea jardunbide egokiak partekatzeko eta estrategia eraginkorra diseinatzeko; hala, esku-hartzeen kohesioa sendotuko da, eta lurraldeko desberdinkeriak murriztuko dira. Gainera, indartu egin behar da lan-sarea, eta herritarrak ere barnean hartu, programen garapenean parte har dezaten, eta ez dadin izan haien azken erabiltzailea soilik.

## Finantzaketa eta jasangarritasuna

Prebentzio-politiken finantzaketak baditu zenbait erronka. Dirulaguntzak beharrezkoak dira, baina haien mende egoteak ez du bermatzen proiektuek jarraipena izanen dutenik epe luzera. Erakundeek esan dute finantza-laguntza behar dutela urtekoa baino jarduera-eremu handiagoa estaltzeko.


## 4.3. EGOERA ADIKZIO-MOTAREN ETA ADIKZIOEN PREBENTZIOKO ESPARRUAREN ARABERA

### Lehentasuna adikzioen prebentzio-motan

Nafarroan, nagusiki prebentzio unibertsalean ardaizten da adikzioen prebentzioa, biztanle guztiei zuzendua. APNAPa prestatzen parte hartu duten taldeek arlo honetan nabarmendu dute prebentzio-ekintzen %85 maila honetan kokatzen direla.

Horrela dago jasota, halaber, Gobernuaren Ordezkaritzak Drogei buruzko Plan Nazionalerako koordinatutako adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketan.

## ADIERAZI ZER NEURRITAN KOKATZEN DEN ADIKZIOEN PREBENTZIOAN EGITEN DUZUN LANA PREBENTZIO-MAILA HAUETAKO BAKOITZEAN (%) (N=25)



4. grafikoa. Nafarroako prebentzio-mailak. Iturria: Adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketa (2024).


Hala ere, nahiz eta ez diren hain ohikoak eta ez duten biztanle guztiei zuzendutako en estaldura bera, zenbait ekintza talde zaurgarriari zuzenduta daude: prostitutak, ijitoak, arriskuan dauden haurrak eta gazteak, gazte migratzaileak eta dibertsitate funtzionala duten adinekoak.

## Lehentasuna adikzioak prebenitzeko esparruetan

Nafarroako adikzioen prebentzioak komunitate-, familia- eta hezkuntza-esparruetako jarduketak lehenetsi ditu. Ingurumeneko eta laneko esparruetako jarduketak askoz ere urriagoak dira. Funtsezko eragileek ere berretsi dute alderdi hori APNAPa prestatzen parte hartu duten taldeetan.

## PREBENTZIO-JARDUKETEN ESPARRUAK

KOMUNITATEA FAMILIA HEZKUNTZA LANA INGURUMENA BESTE BATZUK



5. irudia. Nafarroako Foru Komunitatean egindako prebentzio jarduketaren portzentajearen zenbatespena, esparruak. Iturria: 1. partaidetza-taldea APNAPa (2025-2030) prestatzeko partaidetza-prozesuaren esparruan.

Adikzioen prebentzioko<sup>2</sup> profil profesionalen azterketak berriro berresten du joera hori, eta erakusten du esparru komunitarioa lantzen dutela gehien profesionalek (% 64k diote “nahikoa” edo “nagusiki” landu dela). Lanaren eta hedabideen esparruak jasotzen dute arreta txikiena; erantzun gehienek diote “batere ez” direla lantzen, edo “gutxi” lantzen direla.

ADIERAZI ZER NEURRITAN KOKATZEN DEN ADIKZIOEN PREBENTZIOAN EGITEN DUZUN LANA ESPARRU HAUETAKO BAKOITZEAN (%) (N=25)



6.grafikoa. Nafarroako adikzioen prebentzioko esparruak. Iturria: Adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketa (2024).

Esparru komunitarioa eta talde zaurgarriak

Esparru komunitarioa eta talde zaurgarriekiko duen erlazioa funtsezkoak dira osasuna eta adikzioen prebentzioa sustatzeko. Nafarroan, esparru honek zenbait erronkari egin behar die aurre, zeinek mugatu egiten baitute prebentzio-estrategien eraginkortasuna eta agerian uzten baitute beharrezkoak direla esku-hartze inklusiboagoak, egokituagoak eta jasangarriagoak.

### ► **Gazteentzako aisiako guneetan aisia osasungarriko eta prebentzioko jarduerarik eza**

Nafarroan, aisiarako benetako alternatiba gutxi dituzte gazteek, eta horrek areagotu egiten du biztanle-talde horretan adikzioak garatzeko arriskua. Toki-erakunde eta gizarte-erakunde batzuek zenbait ekimen jarri dituzte abian aisia osasungarriko alternatibak sustatzeko, baina ekintza horiek hobekuntza esanguratsuak behar dituzte eraginkorra goak eta eskuragarriagoak izateko.

Gainera, beharrezkoa da baloratzera zer eragin duten toki-erakunde batzuek prebentzioaren eta arriskuak murriztearen esparruan sustatu dituzten programa batzuek; esaterako, “Joan eta etorri” eta “Jaibus”.

Orobat, adikzioen prebentzio txikiagoa egiten da zenbait tokitan, hala nola etxabeetan. Gazteek sozializatzeko eta, maiz, kontsumitzeko erabiltzen dituzten tokietan prebentzio-lanik egiten ez denez, aukera bat galtzen da arazoari zuzenago heltzeko.

### ► **Gaueko prebentzioan funtsezkoak diren erakundeak desagertzearen eragina**

Duela gutxi, desagertu egin da gaueko prebentzioan eta arrisku eta kalteen murrizketan erabakigarria zen erreferentziazko erakunde bat, eta atzerapauso handitzat hartu da hori esparru honetan. Ondorioz, hutsune bat geratu da gaueko aisiako eremuetarako zuzeneko arretan, non substantzien kontsumoa handiagoa izan ohi baita.

### ► **Emakumeen eta talde batzuen aurkako estigma soziala**

Kontsultatu diren tokiko planek eta azterketek agerian jarri dute kontsumoari lotutako estigma soziala dagoela emakumeen eta zenbait talde espezifikoren aurka (esaterako, LGTBIQA+). Sozialki, gehiago estigmatizatu ohi dira substantziak kontsumitzen dituzten emakumeak; ondorioz, zailagoa gertatzen zaie prebentzio- eta tratamendu-baliabideetara jotzea. Molde berean, LGTBIQA+ kolektiboa gehiago diskriminatzten da, eta horrek oztupo gehiago sortzen dizkie arreta eta babesa jasotzeko.

### ► **Migratzaileen eta etxegabeen zaurgarritasuna**

Berriki Nafarroako Gobernuak<sup>3</sup> egindako azterketa baten arabera, Nafarroan oso zabaldua daude adikzioak eta osasun mentaleko arazoak (diagnostikatuta egon ala ez) migratzaileen eta etxegabeen artean. Itxarotze-zerrendak daude biztanle horiei zuzendutako programa soziosanitarioetan, eta horrek areagotu egiten du haien zaurgarritasuna eta kontsumo problematikoen arriskua. Gainera, aipatu da zaila dela migratzaileen kontsumo-kasu larriak kudeatzera; horrek agerian jartzen du baliabide eskuragarriagoak eta espezifikoagoak behar direla kolektibo horrentzat.

### ► **Prostituzioarekin lotutako kontsumoa**

Munduko Medikuek Nafarroa erakundeak egindako azterketa batek datu kezkarriak ezagutarazi ditu prostituzioarekin<sup>4</sup> lotutako substantzien kontsumoari buruz. Azterketaren arabera, prostituzio-egoeran.

<sup>3</sup> Nafarroako etxegabeei zuzendutako zerbitzuak berrantolatzeo orientabideak. Nafarroako Gobernua, 2020, <https://www.observatorio-realidadsocial.es/es/documentacion/Record/584473#>

<sup>4</sup> Diagnostiko parte-hartzailea. Prostituzioa Nafarroan genero-ikuspegitik eta giza eskubideen ikuspegitik. Munduko Medikuek Nafarroa, 2017, <https://www.berriozar.es/wp-content/uploads/2019/03/Diagnostico-Participativo-Prostitucion-Navarra-2017.pdf>

dauden elkarrizketatutako emakumeen % 83k substantziak kontsumitzen zituzten, eta prostituzio-klub edo -pisuetara joaten ziren elkarrizketatutako gizonen % 100ek ere bai. Egoera ikusita, beharrezkoa ikusi da tailer soziosanitarioak antolatzea, arriskuak eta kalteak murrizteko; horren haritik, premiazkoa da kolektibo horri zuzendutako esku-hartze espezifikoak garatzea. Positiboki baloratu zen prostituzio-egoeraren dauden pertsonen artean droga-kontsumoa prebenitzeko III. Planaren esparruan egindako lana, eremu seguru bat eskaintzen duelako eta konfiantzazko loturak sortzen dituelako.

## Familia esparrua

Familia-esparruan garatzen dira lehenengo sozializazio- eta ikaskuntza-dinamikak, eta haiek eragin zuzena dute kontsumo eta adikzioen prebentzioan.

### ► **Hazkuntzarako trebetasunak eta aiten hezkuntzarekiko erantzukidetasuna hobetzera bideratutako ekintza nahikorik eza**

Nafarroan, beharrezkotzat jo da programa espezifiko gehiago garatzea hazkuntzarako trebetasunak genero-ikuspegitik lantzeko, arreta berezia jarrita aiten hezkuntzarekiko erantzukidetasunean. Nahiz eta gizartean gero eta gehiago hitz egiten den erantzukidetasunaz, datuek erakusten dute eguneroko bizitzan ez dela aplikatzen. NUPEk 2023an egindako azterketa<sup>5</sup> baten arabera, oraindik ere ez dira berdin banatzen etxeko erantzukizunak eta zainketak, amek hartzen baitituzte beren gain zeregin gehienak. Egoera horrek mugatu egiten du aitek izaten ahalko luketen eragina prebentzioko erreferentzia gisa.

### ► **Tailerretako edukia aniztasun kultural eta funtzionalera eta askotariko familia-ereduetara ez egokitzea**

Hauteman den beste erronketako bat da prebentzio-programa eta -tailerrak ez direla behar beste egokitzen Nafarroako aniztasun kultural eta funtzionalera eta askotariko familia-ereduetara. Programa eta tailer horiek pertsonalizatzen ez direnez, kolektibo jakin batzuek ezin dute haietan parte hartu, eta, ondorioz, prebentzio-ekintzek eraginkortasun txikiagoa dute. Nafarroako familien aniztasuna kontuan izanda, ikuspegi inklusiboagoa behar da haien askotariko errealitate eta beharrei erantzuteko.

### ► **Familiak beren kontsumoei buruz kontzientziaztea**

Tokiko planetan aipatzen denez, behar-beharrezkoa da familiak kontzientziaztea beren kontsumoei buruz, bai substantzien kontsumoei buruz, bai portaerekiko adikzioei buruz (adibidez, pantailen erabilera problematikoa edo diruarekin jokatzeko). Familia asko erabat jabetzen dira haiek ohiturek eragina izaten ahal dutela seme-alaben portaeran. Horrek mugatu egiten du prebentzioko agente eraginkor izateko duten ahalmena.

### ► **Kontraesanak kontsumoak prebenitzearen eta normalizatzearen artean**

Nafarroako familia batzuetan (bereziki ohiko kontsumoak dituzten horietan), kontraesanak ikusi dira prebentzio-diskurtsoaren eta eguneroko bizitzaren artean. Prebentzioa sustatu arren, baliteke familia horiek

<sup>5</sup> “Zainketetako erantzukidetasuna Nafarroako familietan. Unibertsitateko ikasleen pertzepzioaren neurketa”, NUP eta NABI, 2023. [https://www.igualdadnavarra.es/uploads/files/Memoria%20OTRI%202023%202140%20052\\_INAI\\_UPNA\\_UR%20\(002\).pdf](https://www.igualdadnavarra.es/uploads/files/Memoria%20OTRI%202023%202140%20052_INAI_UPNA_UR%20(002).pdf)

mezu kontraesankorrak bidaltzea eta, ondorioz, zenbait kontsumo normalizatzea; horrek oztopatu egiten du hezkuntza-koherentzia eta prebentzio-estrategien eraginkortasuna.

### ► **Permisiboak diren eta prebentzioan gutxi inplikatzin diren familia-ereduetarako joera**

Tokiko planek nabarmendu dute familia-eredu permisiboagoetarako joera dagoela; eredu horietan, familiek ez dute hezitzaile aktibo izan nahi kontsumoen aurrean. Ondorioz, gutxi inplikatzin dira prebentzio-ekintzetan, eta hori erronka esanguratsua da familiarentzat.

## Hezkuntza-esparrua

Nafarroako hezkuntza-esparrua erabakigarria da adikzioak prebenitzeko, ikastetxeak eta unibertsitateak funtsezko guneak baitira haur, nerabe eta gazteengan ohiturak eta balioak sustatzeko. Hala ere, gaur egungo diagnostikoaren arabera, zenbait erronkak arlo honetako prebentzio-ekintzen eraginkortasuna mugatzen dute.

### ► **Prebentzio unibertsal ez-espezifikokoaren nagusitasuna**

Nafarroan, hezkuntza-esparruko prebentzio-ekintzak prebentzio unibertsalean ardatzen dira; hau da, eskola-ume guztiei zuzenduta daude, arrisku-mailak bereizi gabe. Nahiz eta ekintza horiek garrantzitsuak izan, beharrezkotzat jo da prebentzio selektiboa eta adierazia indartzea; alegia, substantzien kontsumoarekiko edo adikzio-jokabideekiko zaurgarriagoak diren talde edo banakoei zuzendua. Desoreka horrek mugatu egiten du esku-hartzeek duten gaitasuna arrisku handieneko egoeretan dauden ikasleen beharrei berariaz heltzeko.

### ► **Irakasleen prestakuntza eta prestakuntzaren pertzepzioa**

Azken urteetan, gora egin du adikzioen prebentzioan prestatutako irakasleen kopuruak, baina batzuk ez dira behar bezain trebatuta sentitzen ikasgelan gaiari heltzeko. Tokiko planen eta III. Prebentzio Planeko ebaluazioen arabera, irakasleei iruditzen zaie denbora eta baliabideak falta direla prebentzioa eguneroko lanean integratzeko. Horrek eztabaida piztu du: zeinek hartu behar luke bere gain prebentzio-rol hori ikastetxeetan? Gaur egun, gizarte-erakundeek ez ezik, poliziak ere betetzen du hutsune hori kasu askotan; horrek kritikak eragin ditu, ikuspegi integralagoa hartu behar delako adikzioen prebentzioan.

### ► **Lurraldeko desberdinkeriak eta irisgarritasun falta**

Zonalde batzuetan, jarduketak bultzatzen dira ikasgelan, funtsean ikastetxeek eskatuta, eta gizarte-erakundeetako langile kontratudunek edo profil espezializatuak parte hartzen dute jarduera horietan, baina ez dago jarduera-esparru komunik, eta aldeak daude esku-hartzeen kopuruan eta kalitatean.

### ► **Irakasleen gainkarga eta egiturazko mugak**

Aipatu den beste erronketako bat irakasleen gainkarga da, bereziki ikasturtearen hasieran eta azterketa-garaian. Une horietan, prebentzio-jarduketa ugari gauzatu behar direnez ikasgeletan, irakasleek gainezka egiten dute, eta ekintza horiei behar bezala erantzun ezin dietela sentitzen dute. Halaber, aipatu da gaur egungo hezkuntza-egiturak mugatu egiten duela prebentzioa eskola-curriculumean txertatzea, eta, ondorioz, ezin zaio denboran eutsi.



### ► Eskola-laguntza eta eskolaz kanpoko jarduerak murriztea

Azken urteetan, murriztu egin dira adikzioen prebentzioan diharduten erakundeek eskaintako eskola-laguntza eta eskolaz kanpoko jarduerak. Tradizionalki, jarduera horiek funtsezkoak izan dira adikzioak prebenitzeko, baina, orain, ez daude hain eskuragarri, eta jarraipen txikiagoa dute, eta horrek gutxitu egiten du prebentzioan duten eragina.

### ► Prebentzioa unibertsitatean

Unibertsitatearen esparruan, zenbait prebentzio-ekintza egin dira (esaterako, substantziei buruzko tailerrak, irakasleentzako prestakuntza eta laguntza psikologikoa), baina oraindik ez dira nahikoak. Hezkuntza-maila honetan prebentzioa eskasa da oraindik ere, eta ez dago aski integratuta unibertsitateko bizitzan; horrek hobetzeko aukera ematen du gazte helduengan adikzioei ekiteko.

## Laneko esparrua

Laneko esparrua erabakigarria da adikzioen prebentzioa sustatzeko, hor beren ohiko lan-inguruneetan baitaude helduak; hori dela eta, plataforma estrategikoa izaten ahal da nola langileei hala -zeharka- haien familia-inguruneen zuzendutako prebentzio-ekintzak ezartzeko.

### ► Laneko esparruan kontsumo-ohiturak ez eza gutzea

Tokiko prebentzio-planetan aipatzen den beste erronka garrantzitsu bat da laneko esparruan oro har ez direla eza gutzten kontsumo-ohiturak. Arlo honetan arriskuak prebenitzen hasteko, lanaren antolaketan sortzen diren arrisku psikosozialak<sup>6</sup> murriztu behar dira, besteak beste ezinegon emozionala eragiten ahal dutelako. Gure komunitateko langileen benetako beharretara egokitutako prebentzio-neurri espezifikoak diseinatzeko, beharrezkotzat jotzen da datu argiak eskuratzea laneko esparruko substantzien kontsumoari edo portaerekiko adikzioei buruz, baita faktore psikosozial horien gaineke azterketa eraginkorrak egitea ere. Administrazio publikoak, eta prebentzioaren arloan diharduten enpresek eta erakundeek sekulako erronka dute arlo honetan erabaki estrategikoak hartzeari dagokionez.

### ► Adikzioen prebentzio falta enpresetako arriskuen prebentzio-planen esparruan

Arazo aipagarrienetako bat da oro har ez dagoela adikzioak prebenitzeko ekintzarik laneko esparruan, bereziki enpresetako arriskuen prebentzio-planen bitartez. Gizarte-erakunde batzuek esan dute laneko prebentzio-ekintzak gauzatzen ari direla enpresekin elkarlanean, baina ekimen horiek mugatuak dira, ez dute ezarpen orokortua, eta egoera problematikoa eta ondorioa dituzte helburu, prebentzioa baino gehiago. Esperientzia horiek ez dira nahikoak eskualde-mailako estrategia zabal eta egituratu bat sendotzeko laneko esparruan. Lan-inguruneen adikzioen prebentzioa oraindik ere bigarren mailakoa eta lehentasun txikikoa da enpresetako lan-arriskuen prebentzio-planetan, eta, ondorioz, mugatu egiten da haren eragina eta irismena.

---

<sup>6</sup> <https://www.insst.es/materias/riesgos/riesgos-psicosociales>

## Laguntza-esparrua

Nafarroan, osasun-arretaren esparrua ezinbestekoa da adikzioak prebenitzeko, osasun-zerbitzuak funtsezkoak baitira detekzio goiztiarrean, aholkularitzan eta esku-hartze goiztiarrean. Hala ere, egungo diagnostikoak erakutsi du gabezia handiak daudela osasun-sistemaren barruan prebentzio-estrategiak koordinatzeko eta ezartzeko orduan. Jarraian, egungo egoera zehazten da, bildutako datu eta oharpenetan oinarrituta.

### ► Osasun-arloan koordinazioa hobetzeko eta jarduketa integralak gauzatzeko beharra

Tokiko planek eta funtsezko informatzaileekin egindako elkarrizketek nabarmendu dute beharrezkoa dela askotariko mailak hobeki koordinatzea eta adikzioei ikuspegi zabalagoetik helduko dieten jarduketa integralak gauzatzea. Hor ez da sartzen prebentzioa soilik, baita arreta eta tratamendua ere; hala, adikzioak eta/edo kontsumo problematikoak dituzten pertsonen segimendu egokia eta jarraitua jasoko dute. Barne-kohesiorik ezak zaildu egiten du adikzioei diziplinarterko ikuspegitik helduko dieten estrategia integralak planifikatzea eta gauzatzea.

### ► NDetekzio goiztiarreko estrategien eta kontsumoak murrizteko aholkularitzaren beharra

Ikusi denez, estrategia espezifikoak falta dira kontsumo problematikoak goiz detektatzeko eta arriskuak eta kalteak murrizteko aholkularitza emateko. Detekzio goiztiarra ezinbestekoa da kontsumo larriagoetara ez iristeko, baina, gaur egun, ez dago aski garatutako edo ezarritako protokolorik osasun-zerbitzuetan.

## 4.4. EZAGUTZA ETA IKERKETA SOZIALIZATZEKO PROZESUAREN EGOERA

Adikzioen arloko ezagutza eta ikerketa kudeatzeari dagokionez, zera ikusi da:

### ► Ikerketa bereizirik eta profil espezifikoetara egokitutako ikerketarik ez egotea

Gabezia nagusietako bat da ez dagoela sexuaren, adinaren, jatorriaren eta maila sozioekonomikoaren arabera bereizitako ikerketarik. Ondorioz, ezin dira argi identifikatu askotariko arrisku-profilak, eta prebentzio-programak eta -kanpainak ezin dira biztanleen behar espezifikoetara egokitu. Nahiz eta Nafarroan mota askotako adikzioei buruzko informazioa biltzen den, herri- eta udal-mailako datuak urriak eta mugatuak dira, eta horrek zaildu egiten du analisi xehatuagoa eta testuingurura hobeki egokitua egitea.

### ► Genero-ikuspegia behar bezala ez txertatzea

Genero-ikuspegia funtsezkoa da estrategia inklusiboagoak eta eraginkorragoak diseinatzeko, baina hura ez da behar bezala txertatu adikzioei buruzko azterketa eta ikerketetan. Horrek mugatu egiten du kontsumo-ereduei eta behar espezifikoiei dagokienez gizon eta emakumeen artean dauden aldeei heltzeko gaitasuna, eta betikotu egiten dira prebentzioaren eta arretaren arloko desberdinkeriak. Horren haritik, hasteko, generoari eta adikzioei buruzko txosten bat prestatu da. Txosten hori aukera bikaina da ikuspegi horretatik analisisan eta lanketan sakontzeko. Horri esker, are eraginkorragoak bihurtuko dira arlo honetako esku-hartzeak.

### ► **Garatzen ari diren kontsumoak eta lanketa sentikorra goak eta konplexuagoak**

Prebentzioaren arloan, zenbait hutsune hauteman dira garatzen ari diren kontsumoei dagokienez (adibidez, edari energetikoak eta hipnosedatzaileak). Horrek erakusten du beharrezkoa dela prebentzio-estrategiak dibertsifikatzea, hain bistakoak ez diren baina besteak bezain problematikoak diren kontsumoak ere kontuan izateko.

Adikzioen III. Prebentzio Planak ere ezin izan die egoki heldu adikzio estigmatizatuenetako batzuei; adibidez, ChemSex, Slamming eta espetxeetako droga-kontsumoa.

### ► **Eragina kualitatiboki ebaluatzeo eta neurtzeo beharra**

Ikerketa esanguratsuak egin badira ere, beharrezkotzat jo da programen ebaluazio kualitatiboagoa egitea; esaterako, kontsumitzera daramaten arrazoiak, eta substantziei eta portaerekiko adikzioei lotutako sinbologia. Era berean, ikusi da ez dela neurtzen prebentzio-ekintzen eragina, eta horrek zaildu egiten du haien eraginkortasuna ebaluatzea eta emaitza zehatzetan oinarritutako doikuntzak egitea.

### ► **Baliabideak zabaltzearekin eta dibulgatzearekin erlazionatutako gabeziak**

Baliabideak zabaltzeari dagokionez, ez zaie ikusgaitasunik ematen prebentzio-jarduketari oro har, eta gabeziak daude, halaber, profesionalen eta zerbitzuen artean prebentzio- eta arreta-baliabideak dibulgatzeo orduan. Hori dela eta, ezin dira baliabide egokiak eman, ezin da baliabide egokietara bideratu, eta biztanleei ezin zaizkie jakinarazi adikzioak prebenitzeko eta tratatzeko eskuragarri dauden aukerak.

## **4.5 NAFARROAKO ADIKZIOEN PREBENTZIOAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK**

Azken urteetan, zenbait arazo politiko eta sozial konplexuk eragina izan dute Nafarroan adikzioak prebenitzeari dagokionez aipatzen diren mugetan; besteak beste, adikzioei heltzeko moduek (arloan prebentzioa eta asistentziala bereizita), krisi ekonomikoak edo COVID-19aren pandemiak. Hori gorabehera, aipagarria da alderdi positibo askok zailtasunak saihestea lortu dutela eta, zalantzarik gabe, APNAPa sustatzen eta garatzen lagunduko dutela:

### ► **Nafarroako prebentzio-politiken historia**

Ondoz ondoko hainbat planek (Alkoholismo eta Toxikomanietarako 1986ko, 1993-2011ko, 2012-2017ko eta 2018-2023ko Planak) osatzen dute Nafarroako Foru Komunitatean adikzioak prebenitzeko politiken historia eta ibilbidea. Plan horiek aukera eman dute eza gutzak eta esperientziak metatzeko, zeinak adikzioak prebenitzeko politikek lurraldean izan duten bilakaeran proiektatu baitira.

### ► **Inpaktu-adierazleak hobetzea**

Aipatzekoa da nabarmen hobetu direla substantzia psikoaktiboen kontsumoari eta portaerekiko beste adikzio batzuei buruzko inpaktu-adierazle batzuk aurreko urteetan lortutako datuekin alderatuta; adibidez, tabakoaren erabilera orokortua, hipnosedatzaileen erabilera emakume helduetan, alkoholaren kontsumo intentsibo eta problematikoaren hobekuntza helduengan, eta kontsumitzen hasteko adinak ez aldatzea.

### ► **Kalitatezko programak eta jardunbide egokiak**

Era berean, agerian jarri da esku-hartze komunitario batzuen kalitatea, eta jardunbide egoki gisa identifikatu dira. Horren adibide dugu prostituzio-egoeran dauden emakumeei zuzendutako prebentzio selektiboko-adieraziko programa.

### ► **Ebidentzia zientifiko frogatuko programak**

Gizarte-erakundeek bultzatutako prebentzio-programa batzuek beren ebidentzia zientifikoa ebaluatu eta frogatu dute. Horren adibide ditugu nerabeei eta haien familiei zuzenduta dauden eta lurralde osoan erreproduzitzen ahal diren programa batzuk.

### ► **Prebentzio-ekintzen irismena**

Esparruak, prebentzio-motak eta adikzio-motak kontuan hartuta, Nafarroako prebentzio-politikek irismen handi samarra dute gaur egun. Nahiz eta bada goen zer hobetu, abiapuntu ona dira.

### ► **Lurraldeko eragileen aurretiko jarrera**


Ikusi denez, lurraldeko eragileak prest eta gogotsu daude ebidentzian oinarrituta adikzioen prebentzioko ekintza gehiago eta hobeak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitatean. Horren erakusgarri, APNAPa diseinatzeko sortutako partaidetza-prozesuan parte hartu eta lagundu nahi izan dute Nafarroako Gobernuako eragileek, gizarte- eta toki-erakundeek, partzuergoek eta unibertsitateek.

### ► **Gehienek adostasuna**

APNAParen partaidetza-prozesuak agerian utzi du gehienak ados daudela funtsezko alderdi batzuei dagokienez; besteak beste, beharrezkoa dela Plana lideratuko duen egitura egonkor bat izatea, prebentzio-ikuspegiak homogeneizatzea eta prebentzio-ekintzak ebaluatzea. Alderdi horiei dagokienez hasieratik ados egoteak nabarmenki erraztuko du APNAPa ezartzeko prozesua.

5.


## HELBURU ETA ILDO ESTRATEGIKOAK



## Helburu orokorrak

| HELBURU OROKORRAK                                                                                                                                                           | ALDERDIA                                                               | INPAKTUAREN ADIERAZLEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Kontsumo arriskutsuak eta beste adikzio-portaera batzuk murriztea, baita komunitatean dituzten ondorioak ere</b>                                                         | Prebalentzia nerabeetan (14-18 urte)                                   | · Hauen kontsumoaren prebalentzia nerabeetan (noizean behin, azken urtea, azken hilabetea, egunero): tabakoa, alkohola, kalamua, zigarro elektronikoak, hipnosedatzaileak, edari energetikoak, legez kanpoko drogak, diruarekin jokatzeta, bideojokoak, Internet.                                                                                                                                                        |
|                                                                                                                                                                             | Arrisku handieneko kontsumoak nerabeetan (14-18 urte)                  | · Alkohol-kontsumo konpulsiboa (binge drinking) eta mozkorraldiak azken hilabetean, nerabeetan.<br>· Kalamuaren kontsumo problematikoa nerabeetan.<br>· Diruarekin jokatzeta / Apustuak egitea nerabeetan.<br>· Bideojokoak erabiltzearen ondoriozko nahasmendu posiblea nerabeetan.<br>· Interneten eta teknologia digitalen erabilera problematikoa nerabeetan.                                                        |
|                                                                                                                                                                             | Prebalentzia helduetan (15-64 urte)                                    | · Hauen kontsumoaren prebalentzia helduetan: tabakoa, alkohola, kalamua, zigarro elektronikoak, hipnosedatzaileak, edari energetikoak, legez kanpoko drogak, diruarekin jokatzeta, bideojokoak, Internet.                                                                                                                                                                                                                |
|                                                                                                                                                                             | Arrisku handieneko kontsumoak helduetan (15-64 urte)                   | · Alkoholaren kontsumo konpulsiboa (binge drinking) helduetan.<br>· Alkoholaren kontsumo arriskutsua helduetan.<br>· Kalamuaren kontsumo problematikoa helduetan.<br>· Bideojokoak erabiltzearen ondoriozko nahasmendu posiblea helduetan.<br>· Interneten eta teknologia digitalen erabilera problematikoa helduetan.<br>· Tratamendurako onartuak substantzia psikoaktiboak kontsumitzeagatik 100.000 biztanleko tasa. |
| <b>Droga kontsumoaren eta adikzioa sortzen duten beste jarduera batzuen arriskuaren pertzepzioa areagotzea eta tolerantzia soziala murriztea adingabeen kontsumoarekiko</b> | Eskuragarritasuna nerabeetan                                           | · Azken 30 egunetan alkohola zuzenean erosi edo lortu duten nerabeak.<br>· Substantzien eskuragarritasunaren pertzepzioa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|                                                                                                                                                                             | Arriskuaren pertzepzioa nerabeetan                                     | · Substantzia normalizatuenen inguruko arriskuaren pertzepzioa (alkohola, tabakoa, kalamua).                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>Adikzioa sortzen ahal duten kontsumoak saihestea, edo haietan hasteko adina atzeratzea</b>                                                                               | Arriskuaren pertzepzioa helduetan                                      | · Substantzien eta beste adikzio-jokabide batzuen inguruko arriskuaren pertzepzioa (alkohola, tabakoa, kalamua, psikofarmakoak, diruarekin jokatzeta eta Internet).                                                                                                                                                                                                                                                      |
|                                                                                                                                                                             | Hasteko adinak                                                         | · Tabakoa, alkohola eta kalamua kontsumitzen eta online edo aurrez aurre jokatzen hasteko adina.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <b>Adikzioen prebentzioarekin erlazionatutako osasuneko desberdinkeria murriztea, desberdinkeria-ardatzak kontuan hartuta</b>                                               | Generoa, adina, hiri-/landa-lurraldea, maila sozioekonomikoa, jatorria | · Adikzio-portaeretak joerak nerabeetan: neskak vs mutilak.<br>· Gizon eta emakumeen arteko arrakala psikofarmakoen kontsumoan, adin-taldeen, maila sozioekonomikoaren eta lurraldearen arabera.<br>· Osasunaren balorazio orokorra sexuaren eta maila sozioekonomikoaren arabera.                                                                                                                                       |

## Ildo eta helburu estrategikoak



## Helburu estrategiko eta espezifikoak

| HELBURU ESTRATEGIKOAK                                                                                                                                                 | HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>HE.1</b><br><b>APNAParen lidergoa, koordinazioa eta gobernantza bultzatzea</b>                                                                                     | <b>1.1.</b> NOPLOIk adikzioen prebentzioan duen lidergoa sendotzea.<br><b>1.2.</b> Departamentuarteko eta erakunde arteko koordinazioa sendotzea.<br><b>1.3.</b> Toki-erakundeen, hirugarren sektorearen eta herritarren sareko lana eta partaidetza sustatzea.                                                                                                                                                                                          |
| <b>HE.2</b><br><b>Ingurune seguruak eta bizimodu osasungarriak sustatzea bizitzako hainbat esparrutan, adikzioen prebentzioari heltzeko ikuspegia homogeneizatuta</b> | <b>2.1.</b> Ikuspegiak homogeneizatzea Nafarroan substantziekiko eta substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko.<br><b>2.2.</b> Esparru komunitariotik abiatuta adikzioak prebenitzen laguntzea, ekitatearen ikuspegitik eta lurralde osoan jardunez.<br><b>2.3.</b> Familiako prebentzioa sendotzea, familiek adikzioen prebentzioan duten inplikazioa hobetuta.<br><b>2.4.</b> Jarduera-esparru zehatz bat garatzea eskola-esparruko prebentziorako. |
| <b>HE.3</b><br><b>Zaintza-, ikerketa- eta prestakuntza-dispositiboak garatzea eta ezartzea</b>                                                                        | <b>3.1.</b> Kontsumo eta portaera arriskutsuen inguruko zaintzako eta alerta goiztiarreko sistemak ezartzea.<br><b>3.2.</b> Ezagutza garatzea eta sozializatzea.<br><b>3.3.</b> Adikzioen prebentzioaren inguruko prestakuntza eta truke profesionala ahalbidetzea.<br><b>3.4.</b> APNAPeko ekintzak komunikatzeko estrategia bat diseinatzea eta ezartzea.                                                                                              |
| <b>HE.4</b><br><b>APNAParen gauzatze-mailaren segimendua eta ebaluazioa egitea</b>                                                                                    | <b>4.1.</b> Informazioa biltzeko eta segimendua egiteko sistema bat sortzea.<br><b>4.2.</b> Etorkizunera begirako ikaskuntzak ebaluatzea eta sortzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |



## 6.

# EKINTZA PLANA

Komunitatean identifikatutako beharrei eraginkortasunez heltzeko diseinatu da APNAPeko Ekintza Plana. Plan honek modu argi eta egituratuan zehaztu ditu ezarritako ildo eta helburu estrategiko eta espezifikoko bakoitzerako gauzatuko diren jarduketak.

Jarduketa bakoitzean, hura ezartzeko izendatu diren arduradunei buruzko xehetasunak bildu dira, prozesu osoan lidergo argia egon dadin eta kontuak eman daitezen. Gainera, maiztasun bat ezarri da jarduera bakoitzerako; horri esker, planaren gauzatze-mailaren etengabeko segimendua eta bilakaeraren ebaluazioa egiten ahalko da.

Ikuspegi metodiko hori funtsezkoa da esku-hartzeak eraginkorrrak direla eta APNAParen helburu orokorrekin bat datozela bermatzeko. Jarraibide horiek zehaztean, erantzun koordinatua eta eraginkorra eman nahi zaie adikzioek Nafarroan sortu dituzten erronkei, eta, hala, ingurune osasungarriagoa eta seguruagoa sustatzen da herritar guztientzat

## 1. ILDOA: GOBERNANTZA ETA LIDERGOA

## 1. HE. Planaren lidergoa, koordinazioa eta gobernantza bultzatzea

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                                                 | JARDUKETAK                                                                                                                                                                                                                              | ARDURADUNA                                                                                          | MAIZTASUNA      |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| <b>1.1.</b><br><b>NOPLOI</b> k adikzioen prebentzioan duen lidergoa sendotzea                                                        | <b>1.1.J.</b> Egitura egonkor bat sortzea, Plana zuzentzeko, baliozkotzeko eta koherente bihurtzeko, Planeko jarduketa guztiak teknikoki eta ekonomikoki gainbegiratzeko eta kontrolatzeko, eta hutsuneak eta bikoiztasunak saihesteko. | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea.                                                        | Jarraitua       |
|                                                                                                                                      | <b>1.2.J.</b> Lurraldeko adikzioen prebentzioa antolatzea eta egituratzea.                                                                                                                                                              | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, APNAPean.                                              | 2026tik aurrera |
| <b>1.2.</b><br><b>Departamentu</b> arteko eta <b>erakunde</b> arteko koordinazioa sendotzea                                          | <b>1.3.J.</b> Hainbat mailatan (erakundearen artean, departamentuaren artean eta Osasun Departamentuko arloaren artean) koordinatzeko gune erregularrak planifikatzea, lankidetzak eta informazio-trukea sustatzeko.                    | NOPLOI: Lan Osasuna eta APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea.                                        | Jarraitua       |
|                                                                                                                                      | <b>1.4.J.</b> Lan Osasunarekin lankidetzan aritzea laneko esparruan adikzioak prebenitzeko.                                                                                                                                             | Foruzaingoa, NOPLOIren lankidetzarekin (APNAPa Koordinatzeko Talde).                                | Jarraitua       |
|                                                                                                                                      | <b>1.5.J.</b> Foruzaingoaaren drogen kontsumoa eta trafikoa prebenitzeko jarduerak planarekin lankidetzan aritzea.                                                                                                                      | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, APNAPean inplikaturako eragileak.                      | Jarraitua       |
| <b>1.3.</b><br><b>Toki-erakunde</b> en, <b>hirugarren sektore</b> aren eta <b>herri</b> tarren sareko lana eta partaidetza sustatzea | <b>1.6.J.</b> Toki-erakundeekin eta hirugarren sektorearekin parte hartzeko eta kontuak emateko guneak sortzea, planaren ezarpenaren gardentasuna eta lankidetzak sustatuz.                                                             | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, APNAPean inplikaturako eragileak lankidetzarekin.      | Jarraitua       |
|                                                                                                                                      | <b>1.7. J.</b> Komunitatetik bertatik sortzen diren proposamenak barneratzeko jarduerak diseinatzea, prebentzio-ekintzeki tokiko beharrei eta errealitatei erantzuten dietela ziurtatuz.                                                | ISPLN. Grupo Motor de Coordinación del PPANA con la colaboración de agentes implicados en el PPANA. | Jarraitua       |

## 2. ILDO ESTRATEGIKOA: OSASUNAREN SUSTAPENA ETA ADIKZIOEN PREBENTZIOA HAINBAT ESPARRUTAN

### 2.HE. Ingurune seguruak eta bizimodu osasungarriak sustatzea bizitzako hainbat esparrutan, adikzioen prebentzioari heltzeko ikuspegia homogeneizatuta

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                                             | JARDUKETAK                                                                                                                                                                                                         | ARDURADUNA                                                                                                                                                                                                                               | MAIZTASUNA      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| <b>2.1. Ikuspegiak homogeneizatzea Nafarroan substantziekiko eta substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko</b>                | <b>2.1.J.</b> Jarduketak eta planak toki-mailan ezartzen lagunduko duen tresna praktiko bat diseinatzea, toki-erakundeentzat gida gisa balioko duten gutxieneko jarduketaren katalogoa barne.                      | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuarekin lankidetzan.                                                            | 2026tik aurrera |
|                                                                                                                                  | <b>2.2.J.</b> Araudiak egiten eta haien segimendua egiten laguntzea: Alkoholari buruzko Errege Dekretua, Jokoa eta PITa, besteak beste.                                                                            | NOPLOI: APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Elikagaien Segurtasuneko Atala eta Ingurumen Osasuneko Atala.                                                                                                                               | Jarraitua       |
| <b>2.2. Esparru komunitariotik abiatuta adikzioak prebenitzen laguntzea, ekitatearen ikuspegitik eta lurralde osoan jardunez</b> | <b>2.3.J.</b> Adikzioen arloko prebentzio-jarduketak sustatzea, Haurren eta Familien Programaren bidez, oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta toki-erakundeetako beste arlo batzuen arreta komunitarioaren esparruan. | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuarekin, toki-erakundeekin eta NOPLOIrekin lankidetzan.                                                                     | Jarraitua       |
|                                                                                                                                  | <b>2.4.J.</b> Adikzioen arloko prebentzio-jarduketak sustatzea, Haurren eta Familien Programaren bidez, oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta toki-erakundeetako.                                                     | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuarekin eta Migrazio Politiketako Zuzendaritzarekin lankidetzan.                   | Jarraitua       |
|                                                                                                                                  | <b>2.5.J.</b> Kolektibo espezifikoetako zuzendutako prebentzio selektibo edo adieraziko ekintza komunitarioak sustatzea, toki- eta gizarte-erakundeekin lankidetzan.                                               | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuarekin eta Migrazio Politiketako Zuzendaritzarekin lankidetzan.                   | Jarraitua       |
|                                                                                                                                  | <b>2.6.J.</b> PASE programaren egungo egoera aztertzea, hobekuntza teknikoak eta departamentu arteko koordinazioak baloratzeko.                                                                                    | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuarekin, Nafarroako Gobernu Ordezkaritzarekin eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuarekin lankidetzan. | Jarraitua       |
|                                                                                                                                  | <b>2.7.J.</b> Substantziarik gabeko adikzioetara bideratutako prebentzio-ekintzak indartzea.                                                                                                                       | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea. Toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuarekin lankidetzan.                                                            | Jarraitua       |

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                                             | JARDUKETAK                                                                                                                                                  | ARDURADUNA                                                                                                                                                                                                               | MAIZTASUNA      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| <b>2.2. Esparru komunitariotik abiatuta adikzioak prebenitzen laguntzea, ekitatearen ikuspegitik eta lurralde osoan jardunez</b> | <b>2.8.J.</b> Aisialdian eta jai-eremuetan arriskuak eta kalteak murriztearekin lotutako ekintzak sustatzea.                                                | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan.  | Jarraitua       |
| <b>2.3. Familiako prebentzioa sendotzea, familiek adikzioen prebentzioan duten inplikazioa hobetuta</b>                          | <b>2.9.J.</b> Prebentzio unibertsal, selektibo eta adierazirako programak eta ekintzak sustatzea, lurralde osoko familiei zuzenduta.                        | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin lankidetzan.                                          | Jarraitua       |
|                                                                                                                                  | <b>2.10.J.</b> Hazkuntza-trebetasunak hobetzeko ekintzak sustatzea.                                                                                         | NOPLOI: APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Elikagaien Segurtasuneko Atala eta Ingurumen Osasuneko Atala.                                                                                                               | Jarraitua       |
|                                                                                                                                  | <b>2.11.J.</b> Familia-prebentzioko ekintzetan gizonen parte-hartzea sustatzeko estrategiak diseinatzea.                                                    | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin, toki-erakundeekin eta NOPLOIrekin lankidetzan..                                                  | Jarraitua       |
| <b>2.4. Jarduera-esparru bat garatzea eskola-esparruko prebentziorako</b>                                                        | <b>2.12.J.</b> Ikasgelan parte hartu behar duten eragileak (eskolak, erakundeak, lanbide-heziketako zentroak, unibertsitateak), rolak eta edukiak argitzea. | APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin eta Migrazio Politiketako Zuzendaritzarekin lankidetzan.         | 2027tik aurrera |
|                                                                                                                                  | <b>2.13.J.</b> Eskola-esparruan ongizate emozionala eta adikzioen prebentzioa sustatzeko ekintzak garatzen laguntzea.                                       | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin eta Migrazio Politiketako Zuzendaritzarekin lankidetzan. | Jarraitua       |

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                      | JARDUKETAK                                                                             | ARDURADUNA                                                                                                                                                                                                                            | MAIZTASUNA      |
|---------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| <b>2.4. Jarduera-esparru bat garatzea eskola-esparruko prebentziorako</b> | <b>2.14.J.</b> Unibertsitatearen bitartez adikzioak prebenitzeko jarduketak sustatzea. | APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin, Nafarroako Gobernuako Ordezkaritzarekin eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuarekin lankidetzan. | 2027tik aurrera |

### 3. ILDO ESTRATEGIKOA: IE. EZAGUTZAREN, ZAINTZAREN ETA PRESTAKUNTZAREN SOZIALIZAZIOA

#### 3. HE. Zaintza-, ikerketa- eta prestakuntza-dispositiboak garatzea eta ezartzea

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                        | JARDUKETAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | ARDURADUNA                                                                                                                                                                                                                                                    | MAIZTASUNA      |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| <b>3.1. Kontsumo eta portaera arriskutsuen inguruko zaintzako eta alerta goiztiarreko sistemak ezartzea</b> | <b>3.1.J.</b> Zaintza-sistema bat ezartzea, hon-dakin-uretan abusuzko substantziak aztertze.                                                                                                                                                                                                                                                                                               | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, NILSarekin eta Iruñerriko eta Tuterako Mankomunitatearekin lankidetzan.                                                                                                                                          | 2026tik aurrera |
|                                                                                                             | <b>3.2.J.</b> Alerta goiztiarreko sistemaren segimendua egitea eta haren berri ematea, larrialdi-zerbitzuekin eta beste agente batzuekin komunikatzeko sistema bat ezarri.                                                                                                                                                                                                                 | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, O-NOZekin lankidetzan (larrialdi-zerbitzuak, osasun mentala, lehen mailako arreta eta beste eragile batzuk).                                                                                                     | Jarraitua       |
|                                                                                                             | <b>3.3.J.</b> XTPan parte hartzen duten farmaziekiko eta erakundeekiko komunikazioa indartzea, eta XTPan erabiltzen diren xiringetako substantzia psikoaktiboak aztertzea.                                                                                                                                                                                                                 | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, GIB/HIESA eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Nafarroako Planaren arduradunarekin, Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin eta gizarte-erakundeekin lankidetzan. | 2026tik aurrera |
| <b>3.2. Ezagutza garatzea eta sozializatzea</b>                                                             | <b>3.4.J.</b> Adikzioei buruzko inkesten eta txostenen segimendua eta azterketa egitea (ESTUDES, EDADES, OEDA, beste batzuk). Adikzioei buruzko informazio eguneratua prestatzea eta zabaltzea, ikusleentzat egokitutako formatuetan. Sortzen ari diren kontsumoen zaintza (hipnose-datzaileak, edari energetikoak, zigarro elektronikoak eta intereseke substantzia psikoaktibo berriak). | NOPLOI. Osasun Publikoaren Behatokia, APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilearekin lankidetzan.                                                                                                                                                                   | Jarraitua       |

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                           | JARDUKETAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | ARDURADUNA                                                                                                                                                                                                        | MAIZTASUNA      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| <b>3.2. Ezagutza garatzea eta sozializatzea</b>                                                | <b>3.5.J.</b> Adikzioak prebenitzeko eta arriskuak eta kalteak murrizteko programen/ proiektuen ebaluazioa sustatzea.                                                                                                                                                                                                                | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea.                                                                                                                                                                      | Jarraitua       |
|                                                                                                | <b>3.6.J.</b> Kontsumo-modu berriei, haiekin lotutako jokabideei, adikzioen inguruko arrisku- eta babes-faktoreei eta abarri buruzko ikerketan laguntzea eta parte hartzea. Unibertsitateekin eta ikerketa eta dibulgaziorako funtsezko eragileekin lankidetzan aritzea. Helburuko populazioa (kirol-kanpainak, etxabeak, klubak...) | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Publikoaren Behatokiarekin lankidetzan.                                                                                                                       | 2026tik aurrera |
| <b>3.3. Adikzioen prebentzioaren inguruko prestakuntza eta truke profesionala ahalbidetzea</b> | <b>3.7.J.</b> Adikzioak prebenitzeko lantaldearen barne-prestakuntza bultzatzea: eguneratzea, adikzio-modu berriak eta arrisku-jokabideak; adikzioak prebenitzeko jardunbide egokiak; adikzioak eta ingurune komunitarioa, etab.                                                                                                     | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea.                                                                                                                                                                      | Jarraitua       |
|                                                                                                | <b>3.8.J.</b> Eskola-eremuko profesionalak adikzioen prebentzian gaitzeko prestakuntza-ibilbide bat garatzea.                                                                                                                                                                                                                        | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan.                                                                                                                            | 2027tik aurrera |
|                                                                                                | <b>3.9.J.</b> Ekimenak eta jardunbide egokiak identifikatzea (ingurumen-prebentzioko ekintzak, familia-jardueretako genero-arrakala, etab.) eta haien ezagutza sustatzea, truke profesionaleko eta prestakuntzako espazioen bidez.                                                                                                   | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, toki-erakundeekin, gizarte-erakundeekin, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin eta APNAPeko beste eragile batzuekin lankidetzan. | 2027tik aurrera |
|                                                                                                | <b>3.10.J.</b> Prestakuntza-planetan prebentzioarekin zerikusia duten edukiak/jarduerak sartzen laguntzea: BAME, BAEE, BAPE, gradu eta masterreko ikasleak, ikasleentzako saioak.                                                                                                                                                    | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Irakas-kuntzaren, Ikerketaren eta Berrikuntzaren Atalarekin lankidetzan.                                                                                             | 2026tik aurrera |
| <b>3.4. Planeko ekintzak komunikatzeko estrategia bat diseinatzea eta ezartzea</b>             | <b>3.11.J.</b> Komunikazio-estrategia bat garatzea eta ezartzea, Plana, haren jarraibide teknikoak eta parte hartzen duten eragileen mapa ezagutarazteko, informazioa interesdun guztientzat irisgarria eta ulergarria dela ziurtatuz.                                                                                               | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Kabinetearekin lankidetzan.                                                                                                                                   | 2026tik aurrera |

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                         | JARDUKETAK                                                                                                            | ARDURADUNA                                                                      | MAIZTASUNA |
|------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 3.4. Planeko ekintzak komunikatzeko estrategia bat diseinatzea eta ezartzeao | 3.12.J. Adikzioak prebenitzeko kanpaina globalak garatzea, xede-populaziora iristeko estrategiak eta kanalak hobetuz. | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Kabinetearekin lankidetzan. | Jarraitua  |

#### 4. ILDO ESTRATEGIKOA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

#### 4. HE. APNAParen gauzatze-mailaren segimendua eta ebaluazioa egitea

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                 | JARDUKETAK                                                                                                                   | ARDURADUNA                                                                                  | MAIZTASUNA      |
|----------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| 4.1. Informazioa biltzeko eta segimendua egiteko sistema bat sortzea | 4.1.J. Urteko plan operatiboa egitea.                                                                                        | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea.                                                | Jarraitua       |
|                                                                      | 4.2.J. Urteko plan operatiboa ebaluatzea eta hurrengo urterako ekintzak birbideratzea.                                       | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea.                                                | Jarraitua       |
|                                                                      | 4.3.J. Adierazleak definitzea eta fitxak sortzea (oinarri-lerroa, informazioa biltzeko bideak, datuak biltzeko arduradunak). | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Publikoaren Behatokiarekin lankidetzan. | Jarraitua       |
|                                                                      | 4.4.J. Segimendurako tresnak sortzea.                                                                                        | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Publikoaren Behatokiarekin.             | Jarraitua       |
|                                                                      | 4.5.J. Planaren eta haren adierazleen urteko jarraipena.                                                                     | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Publikoaren Behatokiarekin lankidetzan. | Jarraitua       |
|                                                                      | 4.6.J. Plana gauzatzeari eta kontuak emateari buruzko informazioa.                                                           | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Publikoaren Behatokiarekin lankidetzan. | 2027tik aurrera |
| 4.2. Etorkizunera begirako ikaskuntzak ebaluatzea eta sortzea        | 4.7.J. Planaren azken ebaluazioa (partaidetza-prozesu baten bidez).                                                          | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Publikoaren Behatokiarekin lankidetzan. | 2030            |
|                                                                      | 4.8.J. Planaren emaitzen zabalkundea.                                                                                        | NOPLOI. APNAPa Koordinatzeko Talde Eragilea, Osasun Kabinetearekin.                         | 2030            |

## 7.

# GOBERNANTZA: KUDEAKETA, KOORDINAZIOA ETA ROLAK

Gobernantza eta lidergoa dira APNAParen funtsezko ildo estrategikoetako bat. Funtsezko osagaia izanen da plana eraginkortasunez ezartzeko eta haren ildo estrategikoak eta lehentasunezko ekintzak garatzeko.

Proposatutako gobernantza-ereduak malgua eta moldakorra izatea du helburu. Garatzen den bitartean, APNAPa dinamikoki egokituko zaie sortzen diren beharrei, eta elkarlan estuan jardunen du Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin eta adikzioen arloan esanguratsuak diren erakundeekin.

Gobernantzaren ikuspegi horrek eraginkortasunez koordinatu eta kudeatu nahi ditu baliabideak eta estrategiak, eta berekin dakar tartean diren alderdien artean etengabe komunikatzeko, lan egiteko eta egokitzeko konpromisoa hartzea, planak adikzioen prebentzioaren arloan hain aldakorrak diren erronkei erantzun ahal izan diezaien.


Hala, zeharkako elementu bihurtzen da gobernantza, zeinak erraztu eginen baitu planifikatutako ekintzak modu koherente eta egokituan ezartzea, Nafarroako adikzioen prebentzioan ikuspegi integrala eta parte-hartzailea sustatuz.



Taula honek APNAPean ezarritako helburuak garatzeko askotariko lantaldeak eta languneak biltzen ditu:

| TALDEA                                                                                                             | KIDEAK                                                                                                                                                                                                                                   | HELBURUAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Plana Koordinatzeko Talde Eragilea: NOPLOI                                                                         | Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzuko eta NOPLOIko Kudeatzailtzako Adikzioen Prebentzioko Talde Koordinatzailea.                                                                                                                     | APNAParen ildo estrategikoak eta ekintza-ildoak zehaztea eta bultzatzea. Departamentu barruko lankidetzaren erraztea gure komunitateko adikzioen prebentzioaren arloan.                                                                                                                                                                                                                                           |
| Departamentu arteko Lantaldea                                                                                      | NOPLOI: APNAParen Talde Eragilea, Nafarroako Gazteriaren Institutua, Nafarroako Berdintasunerako Institutua eta Hezkuntza Departamentua.                                                                                                 | Departamentu horiek adikzioen prebentzioan dituzten eskumenei buruzko beharrak eta lan-ildoak koordinatzea, adostea eta lantzea, besteak beste. Ohitura osasungarriak eta aisialdi osasungarria sustatzea.                                                                                                                                                                                                        |
| NOPLOIren eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuaren arteko Koordinazioko Lantaldea | Osasunaren sustapenean eta prebentzioan eta eskubide sozialen arloan eskumenak dituzten departamentuak. NOPLOI: APNAParen Talde Eragilea, eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentua.                        | Komunitateko oinarritzko gizarte-zerbitzuetan toki-mailan sortzen diren beharrak eta gauzatzen diren ekintzak koordinatzea eta lideratzea. Tokian tokiko prebentzio-ikuspegia kudeatzea, ebidentzian oinarrituta eta sortzen diren beharrei modu eraginkorrean erantzunez. 2025-2030 aldirako Nafarroako Familia, Haur eta Nerabeei Laguntzeko Estrategia Integralaren esparruan jarraipena egitea eta laguntzea. |
| Osasuneko Lantaldea: Adikzioak eta Ongizate Emozionala                                                             | Osasun Departamentua: NOPLOI: APNAParen Talde Eragilea, Osasun Mentalaren Kudeatzailtzak; Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua; Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzua. | Osasunaren arloan adikzioen prebentzioarekin lotutako ekintzak bultzatzea, koordinatzea, adostea eta zuzentzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Zaintzako eta Ikerketako Lantaldea                                                                                 | Osasun Departamentua: NOUko Larrialdi Zerbitzua; Osasun Mentalaren Kudeatzailtzak; Osasun Publikoaren Behatokia; Plana Koordinatzeko Talde Eragilea eta NOPLOIko beste eragile batzuk.                                                   | Kontsumo-eredu berriak eta substantzia psikoaktibo berriak agertzearen inguruko jarduketak zaintzea eta koordinatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| Sektore arteko partaidetzarako eta lankidetzarako gunea                                                            | Toki- eta gizarte-erakundeak, gehi unibertsitateak eta intereseko beste eragile batzuk.                                                                                                                                                  | APNAParen ezarpena gainbegiratzeko. Beharrezkotzat jotzen diren jarduketak proposatzea. Jardunbide egokiak prestatzea eta trukitzea.                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Osasun Ministerioko lantaldeak                                                                                     | Osasunaren sustapeneko eta prebentzioko esparruen arabera: arloetako profesional espezialistak, autonomia-erkidegoaren arabera (alkoholaren, tabakoaren eta beste substantzia batzuen prebentzioa).                                      | Osasunaren sustapenaren eta prebentzioaren arloko talde teknikoek ezagutza bateratua eta jardueren ildo estrategiko komunak sortzea Estatu osoan.                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| Drogen Plan Nazionala                                                                                              | Autonomia-erkidegoetako osasun-kontseilarietzako osasun-sailen ordezkariak eta Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritza.                                                                                               | Adikzioen prebentzioari, ikerketari eta legeriari buruzko aholkularitza teknikoak eta laguntza ekonomikoak ematea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                |

## APNAPAREN GOBERNANTZA



## 8.

# EBALUAZIOA, JARRAIPENA ETA AURREKONTUA

Behar-beharrezkoa da APNAParen ebaluazioa eta segimendua egitea behar bezala eta modu eraginkorrean ezartzen dela bermatzeko. Funtsezko prozesua da hori abian jarritako ekintzen eragina neurtzeko eta ezarritako helburuekin bat datozela ziurtatzeko.

Etengabeko ebaluazioaren bitartez, lorpenak identifikatzen ahalko dira, baita doikuntzak edo hobekuntzak behar dituzten arloak ere. Ikuspegi horrek aukera emanen du beharrezkoak diren aldaketak egiteko, planaren eraginkortasuna optimizatzearen; horrela ez da ziurtatuko esku-hartzeek behar bezala erantzunen dietela herri-tarren beharrei eta adikzioen alorrean sortzen ari diren erronkei.

Gainera, segimendurako sistemak ezarrita, errazago bilduko dira ekintzen bilakaerari eta eraginkortasunari buruzko informazioa emanen duten datu garrantzitsuak, eta haiek gauzatzeaz arduratuko direnek kontuak ematea sustatuko da.

APNAPERako esleitutako aurrekontua funtsezkoa izango da prozesu horretan, eta planaren helburuak erdiesteko orduan baliabideak modu efiziente eta eraginkorrean erabiliko direla bermatuko da.

## Ebaluazioa eta jarraipena

Etengabeko ebaluazioa, urteko ebaluazioa eta azken ebaluazioa egitea aurreikusten du APNAPak; azken horrek planari lotutako lurraldeko eragile guztiak inplikatuko ditu.

Etengabeko ebaluazioaren helburua da aldian-aldian jarduketan ezarpenari buruzko informazioa biltzea.

Urtero, planaren bilakaerari buruzko gogoeta kolektiboa bultzatzea eta urteko plan operatiboaren esparruan beharrezko doikuntzak egitea proposatzen da.

Azkenik, azken ebaluazioaren helburua da APNAParen eraginari buruzko ebidentzia biltzea eta hurrengo plana edo plangintza-tresna diseinatzeko hobekuntzak zehaztea. Parte hartzeko hainbat metodologia erabiliko dira, zeinak beheko infografian jaso baitira, helburu eta arduradunekin batera:

| EBALUAZIO-<br>ETA SEGIMENDU-<br>TIPOLOGIA | HELBURUAK                                                                                                                                                                                                    | ARDURADUNAK                                                                                                                | METODOLOGIAK                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|-------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| JARRAITUA                                 | <b>Emitza erregularrak</b> lortzea APNAPean sartutako jarduketan ezarpen-mailari buruz.                                                                                                                      | <b>NOPLOI</b> , APNAPean jasotako prebentzio-jarduketak ezartzen ari diren <b>lurraldeko eragileen</b> parte-hartzearekin. | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datuak biltzeko, kontuak emateko eta ezagutza kudeatzeko <b>tresna digital kolaboratiboak</b> erabiltzea.</li> <li>- APNAParen programei <b>segimendu-bisitak</b> egitea.</li> </ul>                                                              |
| URTEAN BEHIN                              | Prozesu-adierazleetan oinarrituta, <b>hausnarketa kolektiboa</b> bultzatzea APNAParen bilakaerari buruz, eta aurreikusitako <b>urteko plan operatiboaren</b> esparruan beharrezkoak diren doikuntzak egitea. | <b>NOPLOI</b> , APNAPean jasotako prebentzio-jarduketak ezartzen ari diren <b>lurraldeko eragileen</b> parte-hartzearekin. | <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Parte hartzeko dinamikak</b> egitea APNAPa hobetzeko erabakiak hartzeko eta aztertzeko eta urteko plan operatiboa diseinatzeko.</li> <li>- Urteko txostena <b>Gobernu Irekian</b>.</li> <li>- <b>Urteko txosten</b> bat prestatzea.</li> </ul> |
| BUKAERAN                                  | <b>Ebidentzian oinarritutako APNAParen ebaluazioa</b> lortzea, eta hobekuntzak sartzea <b>hurrengo prebentzio-planak</b> edo <b>plangintza-tresnak</b> diseinatzeko.                                         | <b>NOPLOI</b> , APNAPari lotutako <b>lurraldeko eragile</b> guztien parte-hartzearekin.                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Parte hartzeko dinamikak</b> egitea plan berriak nola diseinatu aztertzeko eta erabakitzeko.</li> <li>- Azken ebaluazio-txostena prestatzea, <b>Gobernu Irekian</b> argitaratzeko.</li> <li>- Emaidak <b>zabaltzea</b>.</li> </ul>             |

## Xedeak eta adierazleak

Ebaluazio-mota bakoitzerako, neurri handiagoan edo txikiagoan ebaluatu beharko dira APNAPean sartutako helburu espezifikoak, espero diren emaitzen eta alde aurretik definitutako emaitza-adierazleen arabera. Berariaz xehatzen du hori infografia honek:

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                      | APNAPa EZARRITA LORTU NAHI DIREN EMAITZAK                                                                                                                                                                                                                                                    | ADIERAZLEAK (HELBURUAK)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1. HE. Planaren lidergoa, koordinazioa eta gobernantza bultzatzea</b>                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| <b>1.1. NOPLOIk adikzioen prebentzioan duen lidergoa sendotzea</b>                                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• NOPLOI Nafarroako adikzioen prebentziorako arduradun tekniko gisa aintzatetsi eta baloratu da.</li> </ul>                                                                                                                                           | <p><b>1.1.1. AD.</b> Adikzioen prebentzioan NOPLOI aitzindari izateari dagokionez erakundeek duten gogobetetze-maila inkesta baten bitartez baloratzearen ondoriozko portzentajea.</p> <p><b>Helburua:</b> 2027an eta 2030ean, toki- eta gizar-te-erakundeek % 75ek gutxienez erantzutea inkestari, eta 7 baino gehiago lortzea NOPLOIren aitzindaritzari buruzko galderen blokean.</p> <p><b>1.1.2. AD.</b> Funtsezko eragileek (Nafarroako Gobernu departamentuak, unibertsitateak eta beste batzuk) APNAPeko taldeari eskatutako aholkularitza-kopurua eta -mota, adikzioen prebentzioarekin lotutako ekintzak bultzatzeko.</p> <p><b>Helburua:</b> Gutxienez, APNAPa indarrean dagoen bitartean, inplikaturako eragile guztiek aholkularitza eskatzea.</p> <p><b>1.1.3. AD.</b> APNAParen jarduketak/helburuak integratu dituzten Nafarroako Gobernu beste departamentu batzuetako araudi, estrategia eta planen kopurua.</p> <p><b>Helburua:</b> Beste departamentu batzuetako 5 araudi, estrategia eta planek gutxienez integratzea jarduketak/helburuak APNAParen amaieran.</p> |
| <b>1.2. Departamentuarteko eta erakunde arteko koordinazioa sendotzea</b>                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• NOPLOI Nafarroako adikzioen prebentziorako arduradun tekniko gisa aintzatetsi eta baloratu da.</li> <li>• Departamentuen artean, departamentu barruan eta beste erakunde batzuekin lan egiteko eta koordinatzeko talde aktiboak daude.</li> </ul>   | <p><b>1.2.1. AD.</b> Gobernantzaren urteko txostena, zeinak koordinazio-taldeen emaitzak jasoko baititu (parte-hartzaileen kopurua, egindako ekintzak, bileren kopurua, akordioak, rolak eta agente bakoitzaren funtzioak).</p> <p><b>Helburua:</b> Hori jasoko duen urteko txosten bat egitea eta argitaratzea.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| <b>1.3. Toki-erakundeek, hirugarren sektorearen eta herritarren sareko lana eta partaidetza sustatzea</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Departamentuen artean, departamentu barruan eta beste erakunde batzuekin lan egiteko eta koordinatzeko talde aktiboak daude.</li> <li>• Nafarroako adikzioen prebentzioan parte hartzen duten eragileen funtzioak eta rolak argitu dira.</li> </ul> | <p><b>1.3.1. AD.</b> Antolatzen diren parte hartzeko saioen urteko txostena, zeinak emaitza hauek jasoko baititu (parte-hartzaileen kopurua, egindako ekintzak, bileren kopurua, akordioak, rolak eta eragile bakoitzaren funtzioak).</p> <p><b>Helburua:</b> Hori jasoko duen urteko txosten bat egitea eta argitaratzea.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                                                                           | APNAPa EZARRITA LORTU NAHI DIREN EMAITZAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | ADIERAZLEAK (HELBURUAK)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>2. HE. Ingurune seguruak eta bizimodu osasungarriak sustatzea bizitzako hainbat esparrutan, adikzioen prebentzioari heltzeko ikuspegia homogeneousatuta</b> |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <b>2.1. Ikuspegiak homogeneousatuta Nafarroan substantziekiko eta substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko</b>                                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko jarduerak ezartzeko gida bat egin da. Gida horrek jarduketaren gutxieneko katalogo bat izan behar du, eta irizpide teknikoak izan behar ditu ebidentzian oinarritutako esku-hartzeen ikuspegiak homogeneousatzeko.</li> <li>• Gida aplikatu dadin bultzatu da, dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan lehentasuneko irizpideak sartuz.</li> </ul> | <p><b>2.1.1. AD.</b> Adikzioak prebenitzeko tokiko ekintzak sustatzeko gida, prebentzio-ikuspegi bakoitzerako irizpide tekniko estandarizatu eta guzti.<br/><b>Helburua:</b> Gida 2027an prestatzea eta zabaltzea.</p> <p><b>2.1.2. AD.</b> Gida aplikatu duten Nafarroako eskualdeen portzentajea eta haren ezarpen-maila.<br/><b>Helburua:</b> Nafarroako eskualdeen % 60k gutxienez oinarrizko mailan ezartzea gida APNAPa amaitzean.</p> |
| <b>2.2. Esparru komunitariotik abiatuta adikzioak prebenitzen laguntzea, ekitatearen ikuspegitik eta lurralde osoan jardunez</b>                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adikzioen prebentzio unibertsal eta selektibo-adierazirako ekintzak ezarri dira.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                   | <p><b>2.2.1. AD.</b> Ekitate-ikuspegia duten prebentzio-ekintzetarako dirulaguntza jaso duen lurralde-estalduraren portzentajea.<br/><b>Helburua:</b> Gutxienez lurraldearen % 95ek jasotzea laguntza ekonomiko eta tekniko dirulaguntzen bitartez.</p>                                                                                                                                                                                      |
| <b>2.3. Familiako prebentzioa sendotzea, familiek adikzioen prebentzioan duten inplikazioa hobetuta</b>                                                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan-proposamen jarraitua eta baliozkotua duten familiekin egituratutako jarduketaren portzentajea handitu da.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                      | <p><b>2.3.1.AD.</b> Familiekin egituratutako jarduketa zabalduen portzentajea.<br/><b>Helburua:</b> Familiekin egituratutako jarduketak gutxienez % 10 haztea.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>2.4. Jarduera-esparru zehatz bat garatzea eskola-esparruko prebentziorako</b>                                                                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarduera-esparru zehatz bat prestatu da, Hezkuntza Departamentuaren batera, eskola-esparruan adikzioen prebentzioari ekiteko eta hura pilotatzeko.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                 | <p><b>2.4.1.AD.</b> Hezkuntzarekin lankidetzan sortutako dokumentu teknikoak: "Adikzioen prebentziorako ikastetxeen esparrua eta lanketa".<br/><b>Helburua:</b> Dokumentua 2027an prestatzea.</p> <p><b>2.4.2.AD.</b> Lehentasuna duten ikastetxeetan egindako pilotajea.<br/><b>Helburua:</b> Pilotajea 2028tik aurrera.</p>                                                                                                                |

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                                                                  | APNAPa EZARRITA LORTU NAHI DIREN EMAITZAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | ADIERAZLEAK (HELBURUAK)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>3. HE. Zaintza, ikerketa eta prestakuntza-dispositiboak garatzea eta ezartzea</b>                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>3.1.</b><br><b>Kontsumo eta portaera arriskutsuen inguruko zaintzako eta alerta goiztiarreko sistemak ezartzea</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zaintzako eta alerta goiztiarreko sistema bat ezarri da, alerta goiztiarren sistemarekin koordinatuta.</li> <li>• AHondakin-urak zaintzeko sistema bat garatu da, abusuzko substantziak monitorizatzeko.</li> <li>• Xiringetako substantzien aldizkako analisiak egin dira xiringak trukatzeko programaren (XTP) bitartez.</li> </ul> | <p><b>3.1.1. AD.</b> Alerta goiztiarreko sistemak bidalitako eta jasotako jakinarazpenen urteko txostenak.<br/> <b>Helburua:</b> Hori jasoko duen urteko txosten bat egitea eta argitaratzea.</p> <p><b>3.1.2. AD.</b> Hondakin-urak zaintzearen emaitzei buruzko urteko txostenak.<br/> <b>Helburua:</b> Emaitzak bilduko dituzten txostenak egitea.</p> <p><b>3.1.3. AD.</b> XTPko xiringen analisisen emaitzei buruzko txostenak.<br/> <b>Helburua:</b> Emaitzak bilduko dituzten txostenak egitea.</p> |
| <b>3.2.</b><br><b>Ezagutza garatzea eta sozializatzea</b>                                                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adikzioen prebentzioari buruzko urteko informazio eguneratua zabaldu da profesionalen eta herritarren artean.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                              | <p><b>3.2.1. AD.</b> Osasun Publikoaren Behatokiak emandako adikzio-txostenak, informazio eguneratu eta esanguratsuekin.<br/> <b>Helburua:</b> Bi urtez behin txandaka jasoko duen txosten bat egitea eta argitaratzea (ESTUDES eta EDADES Estatuko inkestek markatutako aldizkako argitalpenen arabera).</p>                                                                                                                                                                                              |
| <b>3.3.</b><br><b>Adikzioen prebentzioaren inguruko prestakuntza eta truke profesionala ahalbidetzea.</b>             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Barne- eta kanpo-trebakuntzako plan bat garatu da, parte-hartzaileen gogobetetze-maila handiarekin.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                        | <p><b>3.3.1. AD.</b> Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonen kopurua.<br/> <b>Helburua:</b> Gutxienez erakundearen % 70ek parte hartzea urteko jardunaldian.</p> <p><b>3.3.2. AD.</b> Prestakuntzan parte hartu dutenen gogobetetze-maila.<br/> <b>Helburua:</b> Urteko jardunaldian parte hartu duten pertsonen gogobetetze-maila, 7tik gorakoa.</p>                                                                                                                                                  |
| <b>3.4.</b><br><b>APNAPeko ekintzak komunikatzeko estrategia bat diseinatzea eta ezartzea</b>                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikazio-estrategia bat sortu da Planaren ekintzetarako (kanpainak, Planaren hedapena, ezagutzaren sozializazioa...), hainbat profil eta kanaletara egokitua.</li> </ul>                                                                                                                                                           | <p><b>3.4.1. AD.</b> Komunikazio-estrategiaren urteroko segimendurako dokumentua.<br/> <b>Helburua:</b> Hori jasoko duen urteko txosten bat egitea eta argitaratzea.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |

| HELBURU ESPEZIFIKOAK                                                        | APNAPa EZARRITA LORTU NAHI DIREN EMAITZAK                                                                                                                                                                                                               | ADIERAZLEAK (HELBURUAK)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>4. HE. APNAParen gauzatze-mailaren segimendua eta ebaluazioa egitea</b>  |                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>4.1. Informazioa biltzeko eta segimendua egiteko sistema bat sortzea</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazio- eta segimendu-sistema bat ezarri da, zeinak ekintzak planifikatzen eta birbideratzen lagundu baitu.</li> <li>• APNAParen helburuen betetze-mailari buruzko informazio publikoa eman da.</li> </ul> | <p><b>4.1.1.AD.</b> Datuak biltzeko sistema, adierazleen % 100i buruzko informazioarekin, sexuaren eta beste desberdinkeria-ardatz batzuen arabera bereizita.</p> <p><b>Helburua:</b> Datu bereiziak biltzeko sistema 2025erako zehaztea, prestatzea eta ezartzea.</p> <p><b>4.1.2.AD.</b> "Gobernu-ekintza"n argitaratutako urteko segimendu-txostenen kopurua.</p> <p><b>Helburua:</b> Gutxienez 6, bat APNAParen urte bakoitzeko.</p> |
| <b>4.2. Etorkizunera begirako ikaskuntzak ebaluatzea eta sortzea</b>        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• APNAPa ebaluatu da, eta etorkizuneko jardueretarako ikaskuntzak sortu dira.</li> </ul>                                                                                                                         | <p><b>4.2.1.AD.</b> Ondorengo ebaluazioa, ondorioak eta gomendioak barne.</p> <p><b>Helburua:</b> APNAPa ebaluatzeko azken txostena egitea eta argitaratzea, hura gauzatzen amaitu ondoren.</p>                                                                                                                                                                                                                                          |



## Aurrekontua

Gainera, APNAParen aurrekontua Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin partekatutako plangintza- eta segimendu-tresna bat da APNAPA indarrean dagoen urteetarako, taula honetan ikusten den bezala:

| ADIKZIOAK PREBENITZEKO IV. PLANAREN GASTUEN AURREKONTUA           |                                                                                                                                              | 2025      | 2026      | 2027      | 2028      | 2029      | 2030      | APNAPa, GUZTIRA |
|-------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------------|
| LANGILERIA-GASTUAK                                                | Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua: Adikzioak Prebenitzeko Plana Koordinatzeko Talde Eragilea eta Osasun Publikoaren Behatokia | 256.379   | 262.788   | 269.358   | 2 76.092  | 282.994   | 290.069   | 1.637.680       |
|                                                                   | Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua: Oinarrizko gizarte-zerbitzueta prebentzio-funtzioak dituzten langileak | 413.472   | 423.809   | 434.404   | 445.265   | 456.396   | 467.806   | 2.641.152       |
|                                                                   | Nafarroako Gazte-riaren Institutua                                                                                                           | 25.367    | 25.367    | 25.367    | 25.367    | 25.367    | 25.367    | 152.202         |
| ADIKZIOAK PREBENITZEKO LAGUNTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOKO JARDUERAK | Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua                                                                                             | 708.419   | 740.000   | 770.000   | 770.000   | 770.000   | 770.000   | 4.528.419       |
|                                                                   | Hezkuntza Departamentua                                                                                                                      | 75.000    | 75.000    | 75.000    | 75.000    | 75.000    | 75.000    | 450.000         |
|                                                                   | Nafarroako Gazte-riaren Institutua                                                                                                           | 77.750    | 77.750    | 77.750    | 77.750    | 77.750    | 77.750    | 466.500         |
| ZABALKUNDE-KANPAINAK ETA MATERIALAK                               |                                                                                                                                              | 67.500    | 50.000    | 50.000    | 50.000    | 50.000    | 50.000    | 317.500         |
| EZAGUTZA ZAINTEZA, PRESTATZEA, EBALUATZEA, IKERTZEA ETA ZABALTZEA |                                                                                                                                              | 98.000    | 90.975    | 104.675   | 114.720   | 124.765   | 134.810   | 667.945         |
| APNAPa, GUZTIRA                                                   |                                                                                                                                              | 1.721.887 | 1.745.689 | 1.806.554 | 1.834.194 | 1.862.272 | 1.890.802 | 10.861.398      |

9.

## ERREFERENTZIAK



Esteka  edo QR honen bidez, APNAPa egiteko erabilitako erreferentzia bibliografikoen zerrenda kontsultatzen ahal da

**10.**

**ERANSKINAK**


# 1. ERANSKINA. APNAPAREN METODOLOGIAREN XEHETASUNA

## 1. ETAPA – PLANGINTZA

Plana garatzen hasi aurretik, zenbait ekintza egin ziren aurretik, Plana planifikatzeko:

- ▶ **Hasierako bilera**, Planarekiko tokiko konpromisoak ezartzeko eta adosteko.
- ▶ **Plana prestatzeko prozesuaren aurkezpena**, NOPLOIko teknikariek batera.
- ▶ **Plana prestatzeko prozesuaren aurkezpena**, NOPLOIko teknikariek batera.

Planaren egitura teknikoa eratzea. Hiru lantalde izanen ditu: batzorde arduradun bat, talde eragile bat eta batzorde parte-hartzaile edo tekniko bat.



**a) Batzorde arduraduna**, NOPLOIren talde eragileko langileek eta NOPLOIren Zuzendaritzak osatuko dute.

**b) Talde Eragilea**, NOPLOIko langileek eta Osasun eta Komunitatea Fundazioko Prebentzio Saileko bi profesionalek osatuko dute. Azken erakunde horrek jaso du APNAParen diseinu parte-hartzailea egiteko enkargua. Talde Eragilea arduratu da APNAParen diseinuaren emaitza diren prozesu eta produktu guztiak egiteaz, antolatzeaz eta gainbegiratzeaz.

**c) Partaidetza-taldeak**, el primero, compuesto por personal de EESS, de departamentos de la administración autonómica, consorcios y universidades; el segundo, más enfocado a la administración local, con técnicos y técnicas de los municipios que están implementando acciones de prevención de adicciones. Para más información sobre la composición de los grupos participativos, se puede consultar el Anexo 2, “Composición de los grupos participativos”, de este informe.

- ▶ Adikzioen prebentzioari buruzko 4 orduko **prestakuntza**, Nafarroako Gobernuko Osasuna Sustatzeko Atalari eta Osasun Publikoaren Behatokiari zuzendua.

## 2. ETAPA – PARTAIDETZA-DIAGNOSTIKOA

Nafarroako adikzioen egoerari buruzko partaidetza-diagnostikoa egitea, informazio-iturri hauetan oinarrituta:

### Drogei eta Adikzioei buruzko III. Prebentzio Plana (2018-2023) ebaluatzea



NOPLOik eskatuta, Spora Sinergies aholkularitza sozialak 2018-2023 aldirako Drogei eta Adikzioei buruzko III. Prebentzio Planaren ebaluazioa egin zuen (2024). Nafarroako Foru Komunitaterako adikzioen adierazleei buruzko emaitzen ebaluazio kuantitatiboa eta III. Planaren arlo estrategikoetan oinarritutako ezarpen-ebaluazioa sartu zituen.

### Nafarroako Foru Komunitaterako ESTUDES 2023 eta EDADES 2024 inkestetako datuak

Nafarroako Foru Komunitaterako ESTUDES 2023 inkestaren datu kuantitatiboak (III. Planaren ebaluazioan sartuak), eta Nafarroarako EDADES 2024 inkestaren datu zabalduak eta eguneratuak. Datu horiek Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokiak eman zituen 2024ko abendura arte. III. Planaren Ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatuz ekin zaio analisiari.

### Parte-hartzaileen taldeak

Diagnostikoari buruzko bi partaidetza-saio egin ziren aurrez aurre. Lehenengo saioan, Nafarroako adikzioen prebentzioari buruzko informazioa bildu zen. Horren barruan, onlineko galdetegi bat jarri zen abian, aurrez aurre parte hartu ezin izan zuten gizarte- eta toki-erakundeei zuzendutako partaidetza-taldean landutako gai berei buruzko galdera irekiekin. Azkenik, bigarren saio bat egin zen, diagnostikoaren emaitzak itzultzeko.

### Funtsezko informatzaileei egindako elkarrizketak

Ordubeteko elkarrizketa erdiegituratuak egin zitzaizkien lurraldeko funtsezko informatzaileei, bideokonferentzia bidez, 2024ko abendutik 2025eko urtarrilera, eta, haiei esker, Nafarroako adikzioen prebentzioari buruzko diagnostikoa osatu eta zabaldu ahal izan zen:

- ✓ Nafarroako Gobernuaren Adikzioak Prebenitzeko aurreko Planetako 2 erreferentzia.
- ✓ Nafarroako gizarte-erakunde bateko Adikzioak Prebenitzeko Programa bateko erreferentzia bat.
- ✓ Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko erreferentzia bat.
- ✓ 4 Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuko lurralde-erreferentziak.

- ✓ Euskadiko Adikzioen Planaren erreferentzia bat.
- ✓ Iruñeko Udaleko hainbat arlotako 3 erreferentzia.

Elkarriketak grabatu, transkribatu eta, ondoren, ezabatu egin ziren, elkarriketatutako pertsonen konfidentziasuna bermatzeko.

## Adikzioak prebenitzeko tokiko planen kontsulta

Horrez gain, gaur egun erkidegoan dauden adikzioei buruzko eta adikzioak prebenitzeko tokiko 3 planetan jasotako diagnostikoak kontsultatu dira. Plan horiek Nafarroako udalerri batzuetako adikzioen prebentzioaren egoeraren berri eman dute: Iruña, Tuter eta Erroibar, Aezkoa, Auritz, Orreaga eta Luzaideko herrien arteko plan mankomunatua. Horrek esan nahi du Nafarroako biztanleen % 36 biltzen duela (Iruña: % 30,2; Tuter: % 5,6; Plan Mankomunatua: % 0,32). Halaber, Euskadiko eta Kataluniako plan autonomikoak kontsultatu dira, eta diagnostikoa diseinatzeko erreferentzia gisa erabili dira.

## Adikzioen Prebentzioan Genero Ikuspegia Txertatzeari buruzko Txostena (NOPLOI)

El ISPLN elaboró un documento interno sobre la perspectiva de género en la prevención de adicciones, incluyendo datos en clave de género que atienden a algunos ejes de discriminación como la edad, el lugar de residencia o la clase social, además del género. Este documento ha permitido matizar y completar la información aportada por otras fuentes, asegurando la mirada crítica desde un enfoque orientado a la equidad y la diversidad.

## Adikzioen prebentzioko profesionalen egoera demografikoa eta prestakuntza-profilak deskribatzeko azterketa. Etorkizuneko aukerak (2024)

Aipatutako azterketa deskribatzailean jasotako emaitza esanguratsuenetako batzuk ere hartu dira kontuan. Excel formatuko inkestaren datu-basetik abiatuta egindako datu kuantitatibo eta kualitatiboen analisiaren bitartez egin da hori. Halaber, aldagaien arteko gurutzaketa esanguratsuenak egin dira, funtsean emaitzak sexuaren arabera bereizteko.

## Talde eragilearen saioak

Talde Eragilea aldian-aldian bildu da, eta diagnostikoari lotutako zeregin hauetaz arduratu da:

- ✓ Lehenetsuneko informazio-iturrietarako sarbidea zehaztea eta erraztea.
- ✓ Partaidetza-taldeak eta elkarriketak antolatzea eta gauzatzea.
- ✓ Diagnostiko-agiria prestatzea eta gainbegiratzea.
- ✓ Diagnostikoaren emaitzei buruzko hausnarketa kolektiboa egitea, Adikzioen IV. Plana diseinatzeko.

## Gobernu Irekiaren bidezko parte-hartzea

Diagnostikoaren zirriborroaren lehen bertsio bat partekatu zen Nafarroako Gobernuaren “Gobernu Irekia” plataforman, Planaren garapenean parte-hartzea txertatzeko helburuarekin.

Diagnostiko osoan zehar bildutako informazioa **triangulazio metodologikoen** bitartez aztertu da. Horrek esan nahi du lortutako emaitzak elkarrekin kontrastatu direla, baliozkotzeko.

## 3. ETAPA – APNAPA PRESTATZEA

APNAPA partaidetza-prozesu baten bitartez prestatzea, informazio-iturri hauek oinarri hartuta:

### Parte-hartzaileen taldea

Aurrez aurreko partaidetza-saio bat egin zen, APNAParen ekintzak lehenesteari buruzkoa, eta Osasun eta Komunitatea Fundazioak dinamizatu zuen. Horren barruan, lehenetsi beharreko ekintzei buruzko banakako eta taldeko dinamikak egin ziren, baita lehenetsi beharreko ekintza horiei buruzko galdera itxiak eta irekiak zituen onlineko banakako inkesta bat ere.

### Onlineko inkesta

Partaidetza-taldeari online egindako inkesta bera atera zen partaidetza-taldean parte hartu ezin izan zuten toki- eta gizarte-erakundeen artean. Askotariko informazio-iturriak integratzeari esker, Planak lehenetsi beharreko ekintzak hautatu ahal izan zituzten Nafarroako Gobernuko hainbat departamentuk, gizarte- eta toki-erakundeek, partzuergoek eta unibertsitateek.

### Gobernu Irekian parte hartzea

Ildo estrategikoen lehenengo proposamen bat partekatu zen Nafarroako Gobernuaren “Gobernu Irekia” plataforman, APNAParen garapenean (eta ez bakarrik azken baliozkotzean) parte-hartzea berriro txertatzeko helburuarekin.

### Talde eragilearen saioak

Bestalde, Talde Eragileak aldizkako saioak egin ditu, eta, haien bitartez, ekintza hauek egin dira APNAPA egiteko:

- ✓ Partaidetza-taldea antolatzea eta dinamizatzea.
- ✓ Onlineko inkesta diseinatzea eta banatzea.
- ✓ APNAPak lehenetsi beharreko ekintzak doitzea, Planaren antolamendu-, koordinazio-, egitura- eta bideragarritasun-irizpideen arabera.
- ✓ APNAParen edukia eta diseinua egitea eta gainbegiratzea.

## 2. ERANSKINA. PARTAIDETZA-TALDEEN OSAERA

### Nafarroako Gobernuko departamentuak

#### Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

- Nafarroako Berdintasunerako Institutua

#### Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua

- Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua
- Kultur Ekintza Zerbitzua

#### Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua

- Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Laguntza Koordinatzeko Atala
- Gizarte Inklusiorako eta Gutxiengoei Arreta Emateko Atala
- Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordetza

#### Hezkuntza Departamentua

- Berdintasun eta Bizikidetzatza Atala

#### Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua

- Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzua
- Nafarroako Gazteriaren Institutua

#### Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua

- Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atala
  - Foruzaingoa
  - Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atala

#### Osasun Departamentua

- Osasun Zuzendaritza Nagusia
  - NOPLOI: Lan Osasunaren Zuzendariordetza
    - Lan Osasunaren Osasun Zerbitzua
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
  - Osasun Mentaleko Kudeatzailatza
    - Arreta Komunitarioaren eta Osasun Mentaleko Zentroen Arloko Zerbitzua
  - Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailatza
    - Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua
  - Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Kudeatzailatza
    - Larrialdi Orokorretarako Zerbitzua



## Tokiko erakundeek

- Arguedasko, Valtierra, Milagroko, Alesbesko eta Cadreitako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Altsasuko Udala/Ayuntamiento de Alsasua
- Aranguren Ibarreko Udala
- Arangurengo Udala
- Atarrabiako Udala
- Añamendiko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Burlatako Udala
- Caparrosoko Udala
- Cintruenigoko eta Fiteroko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Corellako Udala
- Etxarri Aranatz aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Etxarri Aranazko Udala
- Elizaorriko, Lodosako, Mendabiako, Sartagudako eta Sesmako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Erriberri aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Iruñeko Udala
- Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Irurtzungo Udala
- Izañako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Leitzako Udala
- Lizarrako Udala
- Lodosako Udala
- Los Arcos aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

- Orkoiengo Udala
- Queiles Ibarreko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Tafallako Udala
- Tuterako Udala - Mendebalde
- Uharteko Udala
- Zangozako Eskualdeko Mankomunitatea

## Gizarte-erakundeak

- ACOAD Servicios Asistenciales elkarte
- ANTOX Elkarte
- Aralar Elkarte - Ludopatiaren Laguntza eta Prebentzioa Nafarroan
- Atención Ribera Fundazioa
- Hazialdea Elkarte
- Ijitoen Idazkaritza Fundazioa
- Ilundain Haritz Berri Fundazioa
- La Majarí Nafarroako Ijitoen Elkarte
- Munduko Medikak
- Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa:
  - Susperitu programa
- Vida Nueva Kristau Elkarte

## Beste eragile batzuk

- Consorcio para las Estrategias de Desarrollo de la Ribera de Navarra. EDER partzuergoa
- Gobernuaren Ordezkaritza. Hezkuntzaren Goi-Ikuskaritzako Arloa
- Nafarroako Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
  - Dibertsitatearen eta Inklusioaren Unitatea

**NAFARROAKO  
OSASUN  
PUBLIKOAREN ETA  
LAN OSASUNAREN  
INSTITUTUA**

Osasuna Sustatzeko eta Politikak  
guztietan Txertatzeko Atala

**INSTITUTO DE SALUD  
PÚBLICA Y LABORAL  
DE NAVARRA**

Sección de Promoción de Salud  
y Salud en todas las Políticas

Tfno. 848421439

[www.isp.navarra.es](http://www.isp.navarra.es)



**NAVARRA ‡ NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua